

# **UDALAREN OSOKO BILKURA**

## **2008ko abenduaren 29ko ohiko bilera**

### **BERTARATU DIRENAK**

#### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

#### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.  
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.  
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.- M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ and.  
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.  
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.  
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.  
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.  
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.  
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.  
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.  
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.  
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.  
EB-B.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.  
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

#### **EZ DA BERTARATU:**

PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.

#### **EUSKARA ITZULTZAILEA**

KOLDO BIGURI jn.

#### **KONTU-HARTZAILEA**

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

#### **BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA**

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta zortziko abenduaren hogeita bederatziko arratsaldeko zazpiak eta bost minutu direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## **I.- ERABAKITZEKOAK**

**1.- II. BERDINTASUN PLANA ONESTEA:** Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko abenduaren 16ko 546. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Informazio Batzordeak 2008ko abenduaren 10ean hartu zuen 142. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Gizarte Zerbitzuen Sailak Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako II. Plana aurkeztu du. 2008. urtean garatu da, eta udal teknikariek eta Udalarekin zerikusia duten gizarte eragileek parte hartu dute bertako eztabaida-arloetan.

Plan honen ale bana eman zaie alderdi politikoei.

**Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Batzordeak** egoki iritzi dio gai hau Udalaren osoko bilkuran eztabaidatzeari.

**TOKIKO GOBERNU BATZARRA** aipatutako proposamenaren alde agertu da.

## **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** II. Berdintasun Plana onetsiko dela.

### **2.- UPV/EHU-KO CAMPUSEAN ZIENTZIA PARKEA EZARTZEARI BURUZKO XEHETASUN AZTERLANA BEHIN BETIKO ONESTEIA.**

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko abenduaren 23ko 228. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

2008-10-28ko 1.432. Dekretuaren bidez, hasieran onetsi zen UPV/EHUko campusean zientzia parkea ezartzeko xehetasun azterlana.

Jendaurrean jartzeko epean, alegia, BAOen eta egunkarian iragarkiak argitaratzeko ezarritako epean, ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Osoko Bilkuraren bidezko erabakiaren bitartez behin betiko onets dadila aipatutako xehetasun azterlana, eta testu bateginean sartu beharreko baldintza hauek bete, honakoa dioen udalaren bulego teknikoak egindako txostenaren arabera:

- 1 Proiektuko eraikin guztiek estalki laua izango dute.
- 2 Eraikinen estalkietan ipiniko diren instalazio guztiak saretaz inguratuta egongo dira, kanpotik ez ikusteko moduan. Kaptadoreek, antenek, hoztorreek edo beste edozein elementu hartutako azaleraren inguru guztian ipiniko da saretu.
- 3 Xehetasun azterlanean eraikuntzaren banaketa faseei eta fase bakoitzari lotutako urbanizazio obrei buruzko plana azalduko da. Agiri hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta obretako lizentziak eskatutakoan aldatu ahal izango da; orduan, hala badagokio, aurreikusitako fasekako banaketa birdoitu beharko da.
- 4 Zientzia parkea eraikitzeke lehenengo fasearekin egingo den urbanizazio proiektuan antzinako Leioa-Unbe foru errepidearekin bateragarria den egiaztatu beharko da, hala badagokio.
- 5 Eraikuntza proiektua aurkeztu aurretik edo aldi berean, lizentzia eskatzeko azaldu den eraikinari lotutako eremuaren urbanizazio proiektua ere aurkeztuko da. Urbanizazio proiektuak egiaztatu egingo du eraikin hori Zientzia Parkeko gainerako eraikinekin eta UPH/EHUren gainerako eraikinekin lotuko duen oinezkoentzako gutxienez ibilbide bat dagoela, bere malda % 6 edo gutxiagokoa dela.
- 6 EHUK baimena eskatuko dio BFAko Herri Lan Sailari, Leioaren iparraldeko ardatzaren mugakideak diren eraikuntza eta urbanizazio obrak egiteko (A3, B16, B17, D1, B18, B10, B5, B6, B15, B19, B13, B12, B11 eta C2 eraikinak).
- 7 30 eguneko epea egongo da xehetasun azterlanaren testu bategina aurkezteko, aurreko zehaztapenak azalduko direla bertan.

- Horri buruzko iragarkia argitara dadila BAOn, Hirigintzako Plangintza Araudia onetsi zuen ekainaren 23ko 2.159/1978 Errege Dekretuaren 140.7 artikularekin lotuta 2/2006 Legearen 98. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** behin betiko onetsiko dela UPV/EHUko campusean zientzia parkea ezartzeko xehetasun azterlana, aurreko irizpenean adierazitako baldintzen arabera.

**3.- 23. ARLOAN (MENDIBILE) BERRERAIKI DEN EUSKAL BASERRI TRADIZIONALA ERABILTZEARI BURUZKO HAPOren ALDAKETA BEHIN BETIKO ONESTEA.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko abenduaren 23ko 229. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Osoko Bilkurak 2008ko urriaren 20an egindako batzarrean hartutako 7. erabakiaren bidez, hasieran onetsi zen HAPOren aldaketa, HAPOko 23. arloan (Mendibile) berreraikitako euskal baserri tradizionala erabiltzeko.

Jendaurrean jartzeko epean, alegia, BAOn eta egunkarian iragarkiak argitaratzeko ezarritako epean, ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** iritzi du Osoko Bilkuraren erabaki egokiaren bidez honako erabakiak hartzea komeni dela:

- Espedientea behin betiko onetsiko da.
- Dagokion iragarkia egunkarietan argitaratuko da (ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. art.).
- Espedientea Bizkaiko Foru Aldundiari bidaliko zaio, Plangintzaren Euskal Erregistroan inskribatzearen.
- Behin betiko onespenearen erabakien eta hirigintzako arauen testu osoa argitaratuko da BAOn, Plangintzaren Euskal Erregistroan espedientea sartu dela adierazita.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** behin betiko onetsiko dela HAPOren aldaketa, HAPOko 23. arloan (Mendibile) berreraikitako euskal baserri tradizionala erabiltzeko, aurreko irizpenean adierazitako baldintzen arabera.

**4.- “38. SEKTOREKO (LEIOANDI) BABESTUTAKO ETXEBIZITZEN SUSTAPENA KUDEATZEKO ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILAREN ETA LEIOAKO UDALAREN ARTEKO KONPROMISO-AKORDIOA” IZANGO DEN HITZARMENA BEHIN BETIKO ONESTEA.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko abenduaren 23ko 230. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

2008-09-16ko 1205. dekretuaren bitartez, hasieran onetsi zen “38. sektoreko (Leioandi) babestutako etxebizitzaren sustapena kudeatzeko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Leioako Udalaren arteko konpromiso-akordioa” izango den hitzarmena.

Dekretu horrek Batzorde honetan hartutako 156. irizpena azaltzen du; honakoa dio, hitzez hitz:

“Higiezinaren merkatuaren egoera dela eta, Leioako Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak interesgarritzat jo dute 38. sektorean (LEIOANDI) BOE etxebizitzaren sustapena (405 inguru izango dira) eta etxebizitza libreena (218 inguru) ezberdintzea.

Horrek berekin dakar berriro lurzaticatzeko proiektuan burutzen diren hirigintza kudeaketako izapideak ahalik eta arinen bultzatzea; proiektu horretan, aprobetxamenduaren legezko lagapenaren kontura, Leioako udalari adjudikatuko zaizkio babestutako etxebizitzaren lursail guztiak, dagozkion karga urbanizatzaile eta guzti, bai obretan bai berriro ostatu ematekoetan, eta horren bidez etxebizitza libreen kudeaketatik bereizita egin ahal izango da.

Ondoren, Leioako udalak lurzaticatze berrian duen jarrera politikoa jakinaraziko dio Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, eta hori obrak gauzatzearen arduraduna izango da, bai urbanizazio obrena bai babestutako etxebizitzaren lau blokeak eraikitze obrena. Bloke horietako batek alokairu sozialeko 101 etxebizitza inguru izango ditu. Arkitektura kalitate nahikoa izango duten fatxadak lortzeari buruzko beste xedapen batzuk ere erabaki dira.

Hitzarmen hau erabat loturik dago Leioako geltokitik EHUra joango den tranbia sarea gauzatzea bultzatuko duten gestioekin, izan ere, Leioako udalak, bere eskubideen kontura, urbanizazio gailuzko bere gain hartuko du; udalaz gailuzko sistema orokorra egiteko urbanizazioa izango da, zehatzago esateko, tranbiaren plataforma eraikitze obrak. Babestutako etxebizitzaren eraikuntzen “ontziek” osatuko dute plataforma hori.

Babestutako etxebizitzak Leioan erroldatuta dauden bizikidetzaren unitateentzako izango dira; Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak adjudikazioaren prozedura hasteko emango duen agindua argitaratu aurretik Leioan gutxienez hiru urteko antzinasunaz erroldatuta egotea nahitaezkoa izango da.

Bukatzeko, egutegia adostu da, eta horrek berekin dakar gestioetan eta obretan ahalik eta arinen lan egingo dela, izan ere, bloke guztiak aldi berean eraikiko dira, tranbiaren plataforma ahalik eta arin amaitzearren.”

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, hitzarmen honen edukia argitaratu da BAOan, alegazioak aurkezteko aukera egon dadin, baina inork ez du idazkirik aurkeztu.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** egoki iritzi dio espedientea Udalaren Osoko Bilkurari bidaltzeari, hitzarmena behin betiko onetsi dezan. Halaber, alkate-udalburua ahaldunduko da berari gauzatu eta garatzeko agiri publiko zein pribatuak egin ditzan.

#### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** behin betiko onetsiko dela “38. sektoreko (Leioandi) babestutako etxebizitzaren sustapena kudeatzeko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Leioako Udalaren arteko konpromiso-akordioa” izango den hirigintza-

hitzarmena. Halaber, alkate-udalburua ahaldunduko da berau gauzatu eta garatzeko agiri publiko zein pribatuak egin ditzan.

**5.- HAPOko 38. SEKTOREAN (LEIOANDI) HITZARMEN-SISTEMAREN BIDEZKO KUDEAKETA HASIKO DUEN HITZARMENA BEHIN BETIKO ONESTEA. AURKEZTU DEN ALEGAZIOA AZTERTZEA.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta

Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko abenduaren 23ko 231. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

2008-10-24ko 736-O.T. Dekretuaren bitartez, hasieran onetsi zen *HAPOko 38. sektorearen (Leioandi) hirigintza egikaritzeko hitzarmenaren proposamena* izeneko agiria, hitzarmenaren kudeaketa-sistema hasteko, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 160. artikuluan zehaztutakoari jarraiki.

2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, hitzarmenaren eduki osoa argitaratu da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, alegazioak aurkez daitezzen.

Horretarako ezarritako epean, José Antonio eta María Begoña Arrizabalaga Garay jaun-andreek alegazioa aurkeztu zuten, 2008-12-12an (sarrera-erregistroko zk.: 9.270), honakoa adierazi zutela bertan:

- BAOn argitaratutako iragarkian ez zen azaldu finken zerrenda, titulartasuna, azalera eta portzentajea adierazten dituen aipatutako 1. eranskina. Horri dagokionez, idatzi zuen taldeak txostena egin zuen, eta bertan adierazi zuen 1. eranskina izenekoak egikaritze-hitzarmenaren proposatzaileek/jabeek jabetzaren % 50 baino gehiago ordezkatzeko dutela egiaztatzen duela bakarrik; izan ere, ordezkaritza-baldintza hori eskatzen du 2/2006 Legearen 160. artikulua. Agiri osagarria da, edo agiri instrumentala besterik ez, eta hori ez argitaratzeak ez du inolako defentsa-gabezia edo ziurtasun-gabezia juridikorik eragiten, are gehiago interesdunen esku ipini den administrazio-espeditentean aipatutako eranskina azaltzen denean.
- Hitzarmenean 2008ko irailaren 30eko 187. zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria aipatzen da, eta 2008ko irailaren 30eko 187. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofiziala aipatu beharko litzateke. Idatzi zuen taldeak azaldu du akats hori zuzenduko dela aldean artean sinatzeko ipiniko den behin betiko agirian.
- Desadostasuna dago gaztelaniaz eta euskaraz argitaratutako testuen artean. Idatzi zuen taldeak adierazi du desadostasun horrek urbanizazio gastuak egozteko koadroari eragiten diola (A fasea eta B fasea). Gaztelaniazko zutabearen egindako akats edo transkripzio-hutsa izan da, eta euskarazko zutabearen adierazitakoa da testu zuzena. Akats horrek, hala ere, ez du inola ere argitalpena baliogabetuko, are gehiago udal espeditentean azaltzen den jatorrizko testua (aztertzeko ipini dena) zuzena denean eta BAOn euskarazko zutabearen argitaratu den urbanizazio gastuak egozteko testuarekin bat datorrenean.
- Alegazio-egileek kritikatu dute hitzarmenaren proposamenak ez duela azaltzen hirigintzako instrumentuen kostuak eta bestelakoak aldeetako zeinek (Leioako Udalak ala jabeek) ordainduko dituen. Horri dagokionez, idatzi zuen taldeak azaldu du honakoa agerrarazi behar dela: hitzarmen proposamenak arautzen dituen konpromisoek, dagoeneko onetsitako hirigintzako instrumentuetan azaldutakoei eragin ezin dioten arren, UJP baten definizio tekniko edo juridikoa ere ez dute eskatzen; horrela, hitzarmenean beren-beregi azaldu ez denari dagokionez, aurreko hirigintza-agirietan xedatutakoari

jarraitu beharko zaio eta, kasu honetan, behin betiko onetsita dagoen UJPan xedatutakoari (Urbanizatzeko Jarduketa `Programaren 3.3 atala).

- Ildo berean, interesdunek adierazi dute desadostasuna dagoela Leioako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak sinatu beharreko hitzarmenean islatutako hirigintzako kostuen eta UJPan azaldutakoaren artean. Idatzi zuen taldeak jakinarazi du desadostasun hori orain kostuen balioztatzeari buruzko agiri zehatzagoa dagoelako sortu dela.

Horrenbestez, idatzi zuen taldeak honakoa adierazi du: *“Amaitzeko, gure ustez, 38. sektorearen (Leioandi) hirigintza egikaritzeko hitzarmenaren proposamenean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean egin den argitalpenean argi eta garbi islatu dira sektoreko jabeenganako dauden hirigintzako karga eta betebeharrak, 2/2006 Legearen 160. artikuluan agindutakoari jarraituz. Beraz, errekurtso-egileek aipatutako kontraesanak transkripzio-hutsak baino ez dira eta inola ere ez dute argitalpena baliogabetuko, edo alegazioak aurkezteko beste epe bat irekitzeko beharra sortuko; izan ere, ez diete inolako defentsa-gabeziarik eragiten interesdunei/eragindakoei, bertatik ondorioztatutakoaren arabera. Gainera, kontuan izan behar da tramitazioa egin bitartean behar bezala bermatu direla hirigintza-hitzarmenei aplikatu beharreko publizitate eta gardentasun printzipioak. Hori dela eta, honako EBAZPEN PROPOSAMENA egin da: Ez da alegazioa onartuko, baina horrek ez dio kalterik eragingo behin betiko onetsiko den eta sektoreko jabeen eta Leioako Udalaren artean sinatu beharko den Leioandi sektorearen hirigintza egikaritzeko hitzarmenean hitzarmenaren proposamenean ikusi den transkripzio-hutsa zuzentzeari; beraz, IV. azalpeneko bigarren paragrafoan “2008ko irailaren 30eko 187. zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria” azaltzen den lekuan “2008ko irailaren 30eko 187. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofiziala” azaldu beharko da”.*

Udalaren Bulego Teknikoak txostena egin du 2008ko abenduaren 23an, idatzi zuen taldeak azaldutakoa berretsiz.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Guztiz berretsiko da Leioandiko egoitzazko sektorearen hirigintza egikaritzeko hitzarmena idatzi zuen taldeak egindako txostenaren edukia, kudeaketarako hitzarmen-sistema hasteko. Horrek esan nahi du, ez dela onartuko José Antonio eta María Begoña Arrizabalaga Garay jaun-andreek aurkeztutako alegazioa.
- Espedientea bidaliko zaio Udalaren Osoko Bilkurari, hitzarmena behin betiko onetsi dezan. Halaber, alkate-udalburua ahaldunduko da berau gauzatu eta garatzeko agiri publiko zein pribatuak egin ditzan.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** behin betiko onetsiko dela HAPOk 38. sektorean (Leioandi) hitzarmen-sistemaren bidezko kudeaketa hasiko duen hitzarmena, eta aurkeztu zen alegazioa ez dela onartuko. Halaber, alkate-udalburua ahaldunduko da berau gauzatu eta garatzeko agiri publiko zein pribatuak egin ditzan.

**6.- HAPOk 42 B ARLOA (TELLERIA HUTSIK) KUDEATZEKO HIRIGINTZAKO HITZARMENAREN ALDAKETA BEHIN BETIKO ONESTEA.** Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2008ko abenduaren 23ko

232. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

2008-11-12ko 1.518. Dekretuaren bitartez, HAPOko 42 B arloa (Telleria hutsik) kudeatzeko hirigintzako hitzarmena aldatzeko proposamena onesteko prozedura hasi zen, Udalaren Osoko Bilkurak 2005eko irailaren 29ko bileran hartutako 6. erabakiaren bidez onetsi zuena.

Agiri horretako klausulen artean 2.840 m<sup>2</sup> prezio libreko etxebizitzak eraikitze eta 3.134,47 m<sup>2</sup> Hirugarren adinekoren egoitza eraikitze aukera arautu zen, San Bartolome gunean inbertituko den urbanizazio kargaren gainkostua 622.531,86 eurokoa izango dela kuantifikatuz eta aprobetxamenduaren % 10eko lagapena 205.782,04 eurotan balioztatuz, zenbateko horiei dagokien KPI gehitu beharko zaiela.

ETXEZI S.L. merkataritza-etxeak, arloko lurzoru huts guztiaren jabea dela, idazkia aurkeztu zuen (sarrera-erregistroko zk.: 7.096, data: 2008-09-30). Idazki horretan azaldu zuen higiezin merkatuaren gaur egungo egoeran "ezin dela finantziatorik eskuratu, ez bada egoitzazko erabilera zuzkidura erabileratik bereizita". Ahalik eta lasterren hasi nahi du etxebizitzak eraikitzen eta arlo guztiari egotz dakizkiokeen hirigintzako kargak ordaindu, urbanizazio guztia hartuz, logikoa den bezala.

Aldatzeko proposamena egin da bigarren hizpaketaren azken paragrafoa kentzeko. Honako hau zioen:

*"Halaber, modu berean arautu da hitzarmenean lehenengo eraiki nahi den egoitzazko lehenengo eraikinerako obretako lizentzia, hirugarren adineko egoitza hartuko duen eraikinaren obretako lizentziarekin batera edo horren ondoren eman beharko dela. Obrak burutuko direla bermatu beharko da eta, horretarako, finantza-bermeak, eraikuntza-kontratuak edo Udalak beharrezkotzat hartzen duen beste edozein agiri aurkeztu beharko dira".*

Horri buruzko beharrezko iragarkia argitaratu zen 2008ko azaroaren 21eko BAO n eta, alegazioak aurkezteko ezarritako epean, inork ez du idazkirik aurkeztu.

**Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak** egoki iritzi dio espediente Udalaren Osoko Bilkurari bidaltzeari, hitzarmena behin betiko onetsi dezan. Halaber, alkate-udalburua ahaldunduko da berau gauzatu eta garatzeko agiri publiko zein pribatuak egin ditzan.

## **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** behin betiko onetsiko dela HAPOko 42B Arloa (Telleria hutsik) kudeatzeko hirigintzako hitzarmenaren aldaketa. Halaber, alkate-udalburua ahaldunduko da berau gauzatu eta garatzeko agiri publiko zein pribatuak egin ditzan.

**7.- AZKEN EKITALDITIK ETA ARINAGOKOETATIK 2008ko EKITALDIRA SARTUTAKO KREDITU-GERAKINAK ARAZTEKO ESPEDIENTEA. ITXITAKO EKITALDIETAN AINTZATETSITAKO ESKUBIDEEN BAJEI BURUZKO 2008ko ESPEDIENTEA:** Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Berezia 2008ko abenduaren 23ko 226. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udal kontu-hartzaileak diru-sarrerak eta gastuak arazteko dokumentuaren berri eman dio batzordeari. Gauzak horrela, honako arazketa hau proposatu da:

### GASTUEN ARAZKETA

<b>ARLOKAKO LABURPENA</b>			
<b>ARLOAK</b>	<b>ARLOAREN TITULUA</b>	<b>EKITALDIA</b>	
3. ARLOA	ARLO JURIDIKOA		137,58 €
4. ARLOA	SEGURTASUNA		1.086,83 €
5. ARLOA	HEZKUNTZA		79.933,76
6. ARLOA	OSASUNA ETA GIZARTE ONGIZATEA		7.007,07 €
7. ARLOA	HIRIGINTZA		59.855,33 €
8. ARLOA	INBERTSIOAK		613.071,04
9. ARLOA	KULTURA		49.946,95 €
10. ARLOA	KIROLAK		746,79 €
11. ARLOA	ZERBITZU OROKORRAK		19.513,92 €
	<b>GUZTIRA</b>		<b>831.299,27</b>

### DIRU-SARREREN ARAZKETA

2008ko BAJAK

#### ITXITAKO EKITALDIAK

<b>PARTIDAK</b>	<b>KONTZEPTUA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
112.02.00	HIRI ONDASUNEN GAINEKO ZERGA	56.595,27 □
112.02.01	HIRI ONDASUNEN GAINEKO ZERGA. ITXITAKOAK	16.112,53 □
113.00.00	TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	72.605,34 □
114.00.00	HIRI LURREN GAINEKO ZERGA	704,85 □
130.01.00	JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA	19.465,39 □
130.01.01	JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA. ITXITAKOAK	7.286,67 □
190.01.00	MERKATARITZA JARDUEREN LIZENTZIA FISKALA. ITXITAKOAK	0,00 □
190.02.02	LANBIDE JARDUEREN LIZENTZIA FISKALA. ITXITAKOAK	311,01 □

190.06.00	HIRI KONTRIBUZIOA. ITXITAKOAK.	649,80 □
282.00.00	ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA	74.600,97 □
310.02.00	ESTOLDERIA ZERBITZUA	7.447,05 □
310.03.00	UDAL HILERRIA	116,00 □
310.10.00	SAKONETAKO KIROL INSTALAZIOAK. ITXITAKOAK	53,00 □
310.99.00	UR HARTUNEEN ZERBITZUA	275,00 □
311.01.00	ESTABLEZIMENDUAK IREKITZEKO LIZENTZIA	12,05 □
312.01.00	HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK	7.460,10 □
312.01.01	ESTOLDERIAREN UDAL TASA. SUTEA. ITXITAKOAK	2.065,59 □
312.02.00	ZABORRA ETA HONDAKIN SOLIDOAK BATZEA.	300,84 □
341.01.00	SAKONETAKO KIROL INSTALAZIOAK	153,65 □
351.02.00	MAHAIK ETA AULKIAK	98,93 □
391.00.00	ISUNAK	9.811,43 □
393.00.00	BERANDUTZAKO INTERESAK	228,03 □
406.00.03	ENPLEGU TAILERRAREN DIRU-LAGUNTZA	34.476,20 □
410.16.00	EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTZA SUSTAPENA. SOLASGUNE	611,90 □
420.08.00	EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAG.: UDAL LIBURUTEGIA	734,67 □
420.25.00	BFAren DIRU-LAG. AUKERA BERDINTASUNA	345,00 □
420.32.00	BFAren DIRU-LAG. LANBEGI PROGRAMA	20.607,00 □
559.00.00	HIRIGINTZAKO ADMINISTRAZIO EMAKIDAK	886.716,18 □
609.01.00	UDAL LUR-ZATIAK BESTERENTZEA	490.028,37 □
710.04.00	EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZAK	33.256,19 □
771.01.00	ENPRESA PRIBATUEN TRANSFERENTZIAK	486.265,63 □
	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.229.394,64 €</b>

**Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Aldeko irizpena emango zaio aurkeztu den espedienteko diru-sarreraren eta gastuen arazketari, aurretik adierazi diren zenbatekoetan eta gainerako dokumentuetan zehazten diren kontzeptuetan.

2. Berau onesteari buruzko puntua Udalaren Osoko Bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** onetsi egingo dela azken ekitalditik eta arinagokoetatik 2008ko ekitaldira sartutako kreditu-gerakinak arazteko espedientea. Itxitako ekitaldietan aintzatetsitako eskubideen bajei buruzko 2008ko espedientea.

**8.- 2009. URTERAKO AURREKONTU OROKOR BATERATUA.** Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren 2008ko abenduaren 23ko 225. zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2008/12/09an egindako bilera, 2009ko ekitaldirako aurrekontu orokor bateratuaren proiektua aurkeztu zen.

Batzorde horretan 15 eguneko epea ezarri zen (2008ko abenduaren 23an amaitu zen) egokitzat jotzen diren alegazio eta zuzenketak aurkeztu ahal izateko.

Jarraian daude aurrekontu guztien laburpenak, zehatz-mehatz:

## UDAL AURREKONTUA

### 2 0 0 9

### DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENA	2 0 0 8	2 0 0 9
1	ZUZENEKO ZERGAK	6.365.196,46	6.501.058,20
2	ZEHARKAKO ZERGAK	1.100.000,00	1.065.963,87
3	TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK	4.123.005,03	4.401.069,21
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	21.757.714,43	19.859.763,89
5	ONDARE-SARRERAK	533.874,65	1.009.643,13
6	INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA	3.502.615,21	1.815.010,80
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	1.019.034,87	2.090.505,64
	<b>GUZTIRA</b>	<b>38.401.440,65</b>	<b>36.743.014,74</b>

### GASTUEN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENA	2 0 0 8	2 0 0 9
1	LANGILEEN GASTUAK	9.185.669,27	10.306.030,69
2	GASTU ARRUNT ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	14.074.787,35	14.323.435,55
3	FINANTZA-GASTUAK	4.200,00	5.000,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	4.774.106,17	5.149.397,15

6	INBERTSIO ERREALAK	9.962.677,86	5.659.151,35
7	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	400.000,00	200.000,00
8	FINANTZA-AKTIBOAK	0,00	1.100.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>38.401.440,65</b>	<b>36.743.014,74</b>

Soinu-Atadia Fundazio Publikoko Zuzendaritza Batzordeak, 2008ko abenduaren 16an egindako batzarrean, jarraian zehaztutako aurrekontua onetsi zuen:

## SOINU-ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOAREN AURREKONTUA

### 2 0 0 9

#### DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENA	2 0 0 8	2 0 0 9
3	Tasak, prezioak eta bestelako gastuak	559.271,00	585.015,00
4	Transferentzia arruntak	1.269.359,00	1.372.648,00
8	Finantza-aktiboen aldakuntza	6,00	6,00
	<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b>	<b>1.828.636,00</b>	<b>1.957.669,00</b>

#### GASTUEN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENA	2 0 0 8	2 0 0 9
1	Langileen ordainsariak	1.626.600,00	1.709.997,00
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa	170.124,00	221.160,00
3	Interesak	6,00	6,00
4	Transferentzia arruntak	24.000,00	18.000,00
6	Inbertsio errealak	7.900,00	8.500,00
8	Finantza-aktiboen aldakuntza	6,00	6,00
	<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>1.828.636,00</b>	<b>1.957.669,00</b>

Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoko Zuzendaritza Batzordeak, 2008ko abenduaren 17an egindako batzarrean, jarraian zehaztutako aurrekontua onetsi zuen:

## EUSKARAREN ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUA

### 2 0 0 9

### DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENA	2008	2009
	<b>A) ERAGIKETA ARRUNTAK</b>		
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	156.990,25	175.011,02
4	Transferentzia arruntak	1.003.051,54	1.021.637,96
5	Ondare-sarrerak	300,00	300,00
	<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b>	<b>1.160.341,79</b>	<b>1.196.948,98</b>

### GASTUEN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	IZENA	2008	2009
	<b>A) ERAGIKETA ARRUNTAK</b>		
1	Langileen ordainsariak	901.903,50	946.797,49
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa	240.086,97	240.991,15
3	Interesak	474,50	493,48
4	Transferentzia arruntak	7.160,00	2.299,46
	<b>B) KAPITAL-ERAGIKETAK</b>		
6	Inbertsio errealak	10.716,82	6.367,40
	<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>1.160.341,79</b>	<b>1.196.948,98</b>

## AURREKONTU BATERATUA 2009

### DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

KAPITULUAK	IZENA	GORDAILUA
	<b>A) ERAGIKETA ARRUNTAK</b>	
1	Zuzeneko zergak	6.501.058,20
2	Zeharkako zergak	1.065.963,87
3	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	5.161.095,23
4	Transferentzia arruntak	20.734.359,63
5	Ondare-sarrerak	1.048.443,13
	<b>B) KAPITAL-ERAGIKETAK</b>	
6	Inbertsio errealak besterentzea	1.815.010,80
7	Kapital-transferentziak	2.090.505,64
8	Finantza-aktiboan aldakuntza	6,00
	<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b>	<b>38.416.442,50</b>

## AURREKONTU BATERATUA 2009

### GASTUEN EGOERA-ORRIA

KAPITULUAK	IZENA	GORDAILUA
	<b>A) ERAGIKETA ARRUNTAK</b>	
1	Langileen ordainsariak	12.962.825,18
2	Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa	14.799.897,70
3	Interesak	5.499,48
4	Transferentzia arruntak	3.650.006,39
	<b>B) KAPITAL-ERAGIKETAK</b>	
6	Inbertsio errealak	5.674.018,75
7	Kapital-transferentziak	200.000,00
8	Finantza-aktiboen aldakuntza	1.124.195,00
	<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>38.416.442,50</b>

**Xabier Olabarrieta Arnaiz Leioako PP udal taldeko bozeramaileak**, 2008ko abenduaren 23an, 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren proiekturako zuzenketak aurkeztu ditu Udalaren erregistro nagusian. Hona hemen zuzenketen edukia:

### 2009ko AURREKONTUAREN PROIEKTURAKO ZATIZKO ZUZENKETAK

<b>ALDERDI POPULARRA</b>						
<b>Zatizko zuzenketak</b>						
ZUZENKETA	TALDE POLITIKOA	Taldearen zenbatgarren zuzenketak	<u>PARTIDA</u>	<u>KONTZEPTUA</u>	EGUNGO ZENBATEKOA	PROPOSATUTA KO GEHIKUNTZA
1. zk.	PP	1	BERRIA	Diru-laguntzak terrorismoaren biktimen elkarteei	0,00 <input type="checkbox"/>	62.000,00 <input type="checkbox"/>
2. zk.	PP	2	BERRIA	Diru-laguntza Bizkaiko UHUNi	0,00 <input type="checkbox"/>	22.500,00 <input type="checkbox"/>
3. zk.	PP	3	BERRIA	Avanzada lurperatzeari buruzko azterlana	0,00 <input type="checkbox"/>	200.000,00 <input type="checkbox"/>
4. zk.	PP	4	BERRIA	Udaltzaingoaren egoitzari buruzko azterlana	0,00 <input type="checkbox"/>	100.000,00 <input type="checkbox"/>
5. zk.	PP	5	BERRIA	Avanzada errepidearen lurpeko pasabideak hobetzea	0,00 <input type="checkbox"/>	20.000,00 <input type="checkbox"/>
6. zk.	PP	6	BERRIA	Ingurumen gelaren proiektua	0,00 <input type="checkbox"/>	25.000,00 <input type="checkbox"/>
7. zk.	PP	7	BERRIA	Erabilera anitzeko barrutiaren proiektua	0,00 <input type="checkbox"/>	25.000,00 <input type="checkbox"/>
8. zk.	PP	8	BERRIA	Mikrobusen hiri arteko sarearen ezarpena	0,00 <input type="checkbox"/>	200.000,00 <input type="checkbox"/>
9. zk.	PP	9	BERRIA	EHUko campuseko hobekuntzetan laguntzea	0,00 <input type="checkbox"/>	60.000,00 <input type="checkbox"/>
10. zk.	PP	10	BERRIA	Udal merkatua zaharberritzea	0,00 <input type="checkbox"/>	40.000,00 <input type="checkbox"/>
11. zk.	PP	11	BERRIA	Zaborra lurpetik biltzeko sistema ezartzea	0,00 <input type="checkbox"/>	35.000,00 <input type="checkbox"/>
12. zk.	PP	12	BERRIA	Pinuetako aparkalekuaren bigarren jarduketari buruzko azterlana	0,00 <input type="checkbox"/>	30.000,00 <input type="checkbox"/>
13. zk.	PP	13	BERRIA	Garraio publikoari buruzko informazioa	0,00 <input type="checkbox"/>	25.000,00 <input type="checkbox"/>
14. zk.	PP	14	BERRIA	Udal talde politikoetako langileak	0,00 <input type="checkbox"/>	80.000,00 <input type="checkbox"/>
15. zk.	PP	15	BERRIA	Gazteentzako aisia alternatiborako programa	0,00 <input type="checkbox"/>	18.000,00 <input type="checkbox"/>
16. zk.	PP	16	2260605	Gabonetako kultur ekintzak		50.000,00 <input type="checkbox"/>
17. zk.	PP	17	BERRIA	"Leioako Hiria" literatur saria	0,00 <input type="checkbox"/>	3.000,00 <input type="checkbox"/>

18. zk.	PP	18	2260605	Liburu Azoka	□	12.000,00 □
19. zk.	PP	19	BERRIA	Euskal Herriko txirindularitza itzuliaren etapa	0,00 □	45.000,00 □
20. zk.	PP	20	BERRIA	INTAL xake-txapelketa	0,00 □	12.000,00 □
21. zk.	PP	21	BERRIA	Haur-hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta DBHko testu-liburuetarako diru-laguntza	0,00 □	120.000,00 □
22. zk.	PP	22	BERRIA	Hezkuntza arloko teknikari arduraduna	0,00 □	50.000,00 □
23. zk.	PP	23	BERRIA	Hezkuntzaren eskualde-azoka	0,00 □	10.000,00 □
24. zk.	PP	24	BERRIA	Birziklatzeari eta iraunkortasunari buruzko eskolako kanpaina	0,00 □	6.000,00 □
25. zk.	PP	25	BERRIA	Eskola-jazarpenaren aurkako kanpaina (ikasleak/irakasleak)	0,00 □	12.000,00 □
26. zk.	PP	26	BERRIA	Etxebizitzako Udal bulegoa	0,00 □	45.000,00 □
27. zk.	PP	27	BERRIA	Tratu txarrak jaso dituzten emakumei laguntza telematikoa emateko programa pilotua	0,00 □	18.000,00 □
28. zk.	PP	28	BERRIA	Anorexia eta bulimiari buruzko aholkularitza	0,00 □	15.500,00 □
29. zk.	PP	29	BERRIA	Familiako indarkeria kasuetarako aholkularitza	0,00 □	18.000,00 □
30. zk.	PP	30	4800200	Tabakoaren eta alkoholaren kontsumoari buruzko kanpaina		12.000,00 □
31. zk.	PP	31	BERRIA	Immigrazioa laguntzeko proiektua	0,00 □	50.000,00 □
32. zk.	PP	32	BERRIA	Life Plus proiektua (2009) prestatzea	0,00 □	25.000,00 □
33. zk.	PP	33	BERRIA	Udondo ibaiaren hezeguneari buruzko azterlana	0,00 □	15.000,00 □
34. zk.	PP	34	BERRIA	Leioako fauna, flora eta geoari buruzko azterlana	0,00 □	13.000,00 □
35. zk.	PP	35	BERRIA	Leioako geo bolkanikoa balioztatzeko proiektua	0,00 □	12.000,00 □
36. zk.	PP	36	BERRIA	Leioako zaraten mapa egitea	0,00 □	17.000,00 □
37. zk.	PP	37	BERRIA	"Arrain hiruarantza" babestea Gobela ibaian / Udondon / Lertutxeko urtegian	0,00 □	12.000,00 □
38. zk.	PP	38	BERRIA	Lamiakoko padurak eta lokatzak babesteko jarduera	0,00 □	12.000,00 □
39. zk.	PP	39	4811201	Tokiko merkataritza sustatzea	0,00 □	130.000,00 □
40. zk.	PP	40	BERRIA	"Leioako udalak merkataritza" saria	0,00 □	6.000,00 □
41. zk.	PP	41	BERRIA	Leioa sustatzea ekitaldi eta kongresuetarako zentro izateko	0,00 □	29.500,00 □
				<b><u>GASTU HANDIAGOA,</u></b> <b><u>GUZTIRA</u></b>	1.631.000,00€	
				<b><u>FINANTZIAZIOA,</u></b> <b><u>GUZTIRA</u></b>	1.631.000,00€	

### FINANTZIAZIOA

PARTIDA	DESKRIBAPENA	FINANTZIAZIOA	EGUNGO ZENBATEKOA	PROPOSATU TAKO ZENBATEKOA
---------	--------------	---------------	-------------------	---------------------------

22693	Gastu orokorra: % 5	1. zuzenketa: ..... 62.000,00 <input type="checkbox"/> 3. zuzenketa:.....200.000,00 <input type="checkbox"/>	400.000,00 <input type="checkbox"/>	138.000,00 <input type="checkbox"/>
4812800	Udalbide Elkarlan Elkartea	2. zuzenketa: ..... 22.500,00 <input type="checkbox"/>	22.500,00 <input type="checkbox"/>	0,00 <input type="checkbox"/>
6430000	Ikerketa, azterlan eta proiektuak	6. zuzenketa: ....25.000,00 <input type="checkbox"/> 7. zuzenketa:.....25.000,00 <input type="checkbox"/>	150.000,00 <input type="checkbox"/>	100.000,00 <input type="checkbox"/>
6220400	Eraikinetako inbertsioa	4. zuzenketa: ... 100.000,00 <input type="checkbox"/>	300.000,00	200.000,00 <input type="checkbox"/>
1300200	Zehaztugabeak. Bestelako ordainsariak	14. zuzenketa:.. 80.000,00 <input type="checkbox"/>	399.684,38 <input type="checkbox"/>	319.684,38 <input type="checkbox"/>
0	Diru-sarrera handiagoak	5, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 15, 16, 17, 18, 19, 20,21, 22, 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29, 30, 31, 32, 33, 34, 35, 36, 37, 38, 39, 34 eta 41. zuzenketak Guztizko zenbatekoa: 1.116.500,00 <input type="checkbox"/>	0,00 <input type="checkbox"/>	1.116.500,00 <input type="checkbox"/>

Xabier Olabarrieta jaunak luze azaldu du bere esanahia, eta hurrengo osoko bilkuran azalduko da zabalago.

Ondoren Iñaki Goikoetxea jaunak hitz egin du, eta gobernu taldeak aurkeztutako aurrekontu-proiektua gidatu duten ildo nagusiak azaltzearen bitartez erantzun du.

Era berean, PSE-EE taldeak 2009ko aurrekontuari buruz duen jarrera azaldu du, baina aurrekontua eztabaidatzeko egingo den osoko bilkuran zehatzago azalduko dutela adierazi du. Halaber, udal teknikariek aurrekontua egiteko egin duten lan egokia aktan agerraraztea nahi duela esan du. Ez diote inolako zuzenketarik aurkeztu 2009ko aurrekontuari, azaldu dutenez, Leioa udalerrarentzat onuragarriak izango diren proiektuak egiteko gobernu taldearekin lankidetzan aritzea delako euren helburua.

Luze eztabaidatu ondoren, **Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak** egoki iritzi dio erabaki hau hartzeari:

1. **Onartu egingo da** Soinu-Atadia Fundazio Publikoko Zuzendaritza Batzordeak 2008ko abenduaren 16ko batzarrean egindako proposamena, "aurreikusitako gabeko diru-sarrerak" izeneko 399.00 diru-sarreraren partidako 27.000,00 euroko zenbatekoa bi partidatan bereizteko, hobeto ikus dadin jatorria zein den:

- 2.000,00 €, “Aurreikusi gabeko diru-sarrerak”, 399.00 aurrekontu partida
  - 25.000,00 €, “CDen salmentako diru-sarrerak”, 399.02 aurrekontu partida
2. Bozketa egin ostean, **gaitziritzi egingo dira** ALDERDI POPULARRAK aurkeztutako hurrengo zatizko zuzenketak. Honakoa izan da bozketaren emaitza: **aldeko botoak:** EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jauna, Batzorde honetako burua, EAJ-PNVko M<sup>a</sup> Carmen Urbietta andrea, EAJ-PNVko Beatriz Resa Bardeci andrea, EAJ-PNVko Jon Peli Lazkano jauna eta EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia jauna; gaitziritztearen **kontrako botoak:** PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna; **abstentzioak:** PSE-EEko Alfonso López Arevalillo jauna, PSE-EEko Luis Maria Pérez Pérez jauna eta PSE-EEko Juan Carlos Martínez Llamazares jauna.
  3. Bozketa egin ostean, **onetsi egingo da** 2009ko ekitaldirako aurrekontu orokor bateratua, Batzorde honen irizpenean kapituluaren eta erakunde autonomoen eta Leioa Kirolak SAU elkartearen araberrako laburpena azaldu dela. Honakoa izan da bozketaren emaitza: **aldeko botoak:** EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jauna, Batzorde honetako burua, EAJ-PNVko M<sup>a</sup> Carmen Urbietta andrea, EAJ-PNVko Beatriz Resa Bardeci andrea, EAJ-PNVko Jon Peli Lazkano jauna eta EB-BERDEAK taldeko Iñaki Gomendiourrutia jauna; **abstentzioak:** PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna; PSE-EEko Alfonso López Arevalillo jauna, PSE-EEko Luis Maria Pérez Pérez jauna eta PSE-EEko Juan Carlos Martínez Llamazares jauna.
  4. Ondorioz, onetsi egingo dira aurrekontu horretan jaso diren langileen plantillak.
  5. Onetsi egingo da aurrekontua gauzatzeko udal araua, eranskin gisa diru-laguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantza daukala.
  6. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatutakoaren arabera, horrela onetsitako aurrekontuak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarri ondoren, jendaurrean azalduko dira hamabost eguneko epean. Interesdunek epe horren barruan aurrekontuak aztertu eta erreklamazioak egin ahal izango dizkiote osoko bilkurari.
  7. Aurrekontua behin betiko onetsi dela ulertuko da aipatutako hamabost eguneko epean inork erreklamaziorik aurkezten ez badu; bestela, Osoko Bilkurak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.
  8. Osoko Bilkuraren hurrengo batzarrerako gai zerrendan sartuko da 2009ko aurrekontu orokor bateratuari buruzko puntua.

**Eztabaida:**

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Alkate jaunak bozeramaile bakoitzari hasierako txanda bat emanaz antolatu du eztabaida, eta udal taldeko PPko bozeramailea den Xabier Olabarrieta jauna mintzatu da lehenbizi, bere alderdiak aurkeztutako zuzenketak defendatzeko.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Krisia dela-eta gobernu taldeak proposatutako aurrekontua desegokia dela esan du, zehazki 2009 urteari buruz aipatzen dena. Inbertsioen kapituluaren bildutako %32ko murrizketa gaitzesteaz gain, krisiari aurre egiteko ekimen zehatzak eta garbiak bildu ez direla aipatu du. Halaber, adierazi du bere alderdiak emandako proposamenek krisiaren eraginak murriztea dutela xede, baita Leioako garapena sustatzea ere, azpiegituretan inbertituz eta merkataritza bultzatuz.

Aurrekontu proiektuaren ondorioz, 82 zatizko zuzenketa proposatu direla esan du; horietatik 41 gastuei zuzenduta daude, osotara 1.600.000 eurotik gorakoak direnak. Zuzenketa bakoitza dagokion finantzazio proposamenarekin batera aurkeztu da, haren ustez, teknikoki eztabaidatu eta aztertu ahal direnak.

Jarraian zuzenketa bakoitzaren inguruan mintzatu da, Terrorismoaren Biktimen Elkarteari zuzendutako diru-laguntzak berebiziko garrantzia duela nabarmenduz; izan ere, erakunde mota horiei laguntzeko bide argiak ezartzeko beharra ikusi du. Ondoren, Bizkaiko UHUNri zuzendutako diru-laguntza finantzatu ahal izateko Udalbide Elkarlan Elkarteari emandako diru-laguntza kentzea eskatu du, azken horrek gizabanakoak elkarren artean hurbildu beharrean, bereizi egiten baititu; gainera, ETAk iruzur egiteko erabili zuen su-etenean eratu baitzen hori.

Jarraian, udal taldeko PPko bozeramaileak esandakoa hitzez hitz errepikatu da, zenbait aldaketa txiki izan badira ere.

Inbertsioen inguruko kapituluari buruz, garrantzitsutzat jotzen ditudan hainbat partida nabarmendu nahi ditut, besteak beste: La Avanzada osorik lurperatzeari buruzko azterlana. Dena dela, ez naiz gobernu taldeak proposatu duenaz ari, izan ere, zatizko lurperatzea gauzatzea aztertzen du horrek eta, beraz, ez ditu azpiegitura honek gure udalerrian eragiten dituen arazo larriak konponduko.

Halaber, behar-beharrezkotzat jotzen dugu Udaltzaingoa hartuko duen bulego berri bat sortzea. Izan ere, oraintxe bertan gauzatzen ari diren eraberritze-lanak ikusita, eta ia hogeita hamar mila biztanle dituen udalerrri bateko Udaltzaingoak dituen premiak kontuan hartuta, nahikoak ez direla uste dugu.

La Avanzadako lurpeko pasabideak hobetzea proposatzen dugu. Sobera dakizue pasabideak jartzearen aurka gaudela, gure ustez, lurpeko pasabideak hobetzea eta La Avanzadako lurperatze osoan inbertitzea eraginkorragoa eta merkeagoa delako.

Horrez gain, udalerrriaren mesederako inbertsioak edo jarduera ekonomikoa ekar ditzaketen zenbait proiektu proposatzen ditugu, esaterako: ingurumen aretoaren proiektua, erabilera anitzeko aretoaren proiektua eta hiriarteko autobusen eta mikrobusen sarea ezartzea. Izan ere, barruko mugikortasunari dagokionez, gure udalerrriak oraindik ere asko dauka aurreratzeke, eta ezin gara horren desiratua den tranbia noiz helduko zain gelditu. Gainera, azken horrekin bakarrik ez dira gure udalerriko mugikortasun arazo guztiak konponduko.

UPV/EHUko campusa hobetzeko lanetan kolaborazioa proposatzen dugu, baita udal azoka berritzeko lanetan ere, azken helburu horretarako hainbat udalen eredu oinarritu garelana. Izan ere, azoken merkatariekin batera ari dira lankidetzan horiek eta, gure ustez, azoka udalerriko azpiegitura garrantzitsua den aldetik, gure Udalaren parte hartzea ezinbestekoa da.

Horrekin batera, lurpeko zabor-bilketa ezartzea proposatzen dugu, beste hainbat udalerritan ere sistema hau ezartzen ari delako eta, gainera, udalarentzat positiboa delako. Azpiegitura mota hau eratzeko, etorkizunean tranbia ezartzeko obrak erabil daitezke.

Pinuetako lurpeko aparkalekuaren bigarren jarduketei ekitea proposatzen dugu, baita garraio publikoari buruzko informazio gehiago eskaintzea ere.

Gobernu organoei dagokienez, uste dugu krisia ez dela aitzaki izan behar udal talde guztiek, bereziki oposizioa eratzten dutenek, haien lana eraginkortasunez eta duintasunez egin dezaten behar dituzten bitartekoak ezeztatzeko. Horregatik guztiagatik, udal taldeei zuzendutako partida zehatza onestea proposatzen dugu, bereziki oposizioa eratzten dutenak hartuko dituenak.

Kultura, kirol eta gazteriaren alorrean neurri edo proposamen jakinak planteatzen ditugu, gure ustez, udalaren kultura arloa gehiago sustatzeko interesgarriak izan daitezkeenak; besteak beste, gazteei zuzendutako aisialdirako programa alternatibo bat edo eguberri garaiko kultur ekimenak gehiago bultzatzea. Halaber, "Leioako Hiria" literatura saria sortzea eta liburuaren azoka berreskuratzea pentsatu dugu, baita Euskal Herriko Itzuliaren etapa bat edo, adibidez, nazioarteko xake lehiaketa bat hartzea ere.

Hezkuntzaren alorrean, oinarrizkotzat jotzen ditugun zenbait partida nabarmendu nahi ditugu, esaterako: haur hezkuntzako, lehen eta bigarren hezkuntzako testuliburuak ordaintzeko diru-laguntzak, edo udalaren aurrekontuaren zein plantillaren barruan hezkuntzako teknikari baten lanpostua sartzea. Horrez gain, interesgarria litzateke ere Hezkuntzaren Eskualde Azoka edo birziklatzeari zein iraunkortasunari eta eskola-jazarpenari buruzko eskola kanpaina bat sartzea.

Gizarte Ongizateari dagokionez, berriro ere gogorarazi nahi dugu oso garrantzitsua dela Udalak etxebizitzari buruzko udal bulego bat edukitzea. Horrekin batera, funtsezkoa da Udalak tratu txarrak jasandako emakumeei zuzendutako laguntza telematikoko programa pilotua sustatzea, baita anorexiari, bulimiari, etxeko indarkeriari, tabakoa edo alkohola kontsumitzeari buruz aholkularitza zerbitzuak ezartzea ere. Halaber, immigrazioa laguntzeko programa bat eratzea aurreikusi dugu, krisiaren eraginak sufritzeko aukera handiagoak dituen kolektiboa baita.

Ingurumenaren alorrean, beste aurrekontu batzuetan, hots, aurreko ekitaldietako beste zuzenketa batzuetan iradokitako zenbait neurri proposatzen ditugu, besteak beste, 2009rako Life-Plus proiektua prestatzea, Udondo ibaiko hezegunea aztertzea, edo Leioako fauna, flora eta gea ikertzea, hala nola Leioako Gea Bolkanikoa baliozkotzea.

Benetan beharrezkotzat jotzen dugu Leioako zaraten mapa bat eratzea. Badira horren ondorioz kalte handiak pairatzen dituzten eremuak, La Avanzada edo Lamiako industriguneetatik gertu dagoen eskualdea, esaterako. Horrekin batera, Gobela ibaian, Udondo inguruan eta Lertutxeko urtegian arrain hiruarantza babesteko plan bat eratu behar dela uste dugu, Lamiakoko padurak eta lupetzak babesteko neurriak ahaztu gabe.

Ekonomia eta merkataritza sustatzeko neurrien artean, ezinbestekoa deritzogu, adibidez, Udalak bertako merkataritza bultzatzea. 2009ko aurrekontuan nolabaiteko igoera bat aurreikusi bada ere, Udalak gure udalerriko merkatariei babesa emateko berebiziko ahaleginak egin behar dituela uste dugu. Izan ere, krisiak eragindako ondorioak zuzen-zuzenean jasaten ari den kolektiboa da hori eta, horrexegatik, Udalak ezin du haren etorkizuna patuaren esku utzi. Ondorioz, babesa eskaini behar die merkatariei, aurrekontuan haiei zuzendutako partida garrantzitsu bat programatuz eta proposatuz. Leioako Udala Merkataritzari saria ekonomia sustatzea xede duen partida bat da. Horrekin batera, helburu bera duen beste partida bat proposatzen dugu guk, hots, Leioa ospakizun eta kongresu puntu nagusi gisa sustatzeko. Izan ere, oraintxe bertan baditugu bestelako ospakizunetarako, kongresuetarako, etab. zuzendu daitezkeen zenbait instalazio, besteak beste, Mendibe Jauregia edo Kultur Leioa auditoriuma bera, baita Artaza Jauregia ere, azken hori Udalarena ez den arren. Gure ustez, Leioak ahalegin handiak egin behar ditu jarduera ekonomikoa erakarri nahi badu, hain zuzen, Udala sustatu eta gure udalerriko jarduera ekonomikoa bultzatuko dituzten enpresa zein instituzio ospakizun edo bilera mota hauek ekartzeko.

Hauek dira gure zuzenketak, guztira milioi bat eta seihun mila euro gutxi gorabehera eskatzen dutenak. Argi utzi nahi dugu zuzenketa hauei esker, aurrekontua hobetu egiten dela. Pasa den asteko Ogasun Batzordean zuzenketak aurkeztu genituenean, eta aurrekontu proiektua bozkatzeko unean, abstenitu egin ginen. Izan ere, Batzordean aipatu genuen moduan, gobernu taldeak zuzenketak edo gure proposamena hartzeko aukera dauka, eta horregatik, ekarri ditugun proposamenen bat edo, nahiko genukeen bezala, proposamen guztiak hartzea Udalaren mesederako dela uste dugu.

Ondorioz, aurrekontu honek osoko zuzenketa bat argi eta garbi merezi duela nabarmendu nahi dut, ez baita garai hauetan Leioarako egokia, alegia, datorren urterako, 2009rako. Hori dela eta, aurrekontua hobetze aldera alderdi guztien artean proposamenak egitea interesgarria izango litzatekeela pentsatu genuen eta, beraz, osoko zuzenketa aurkezteko une egokia ez zela ikusi genuen. Aipatutako helburua lor dezagun, aurrekontua hobetzeko proposamenak ekarri eta osoko zuzenketa aurkezteko aukera deuseztatu egin dugu.

Gobernu taldearen eskutik jaso dugun erantzuna isiltasuna baino ez da izan, hau da, ez dugu ez erantzunik ez iritzirik jaso gure zuzenketen eta aurrekontua hobetzeko proposamenaren inguruan. Benetan penatu egiten gaituen jarrera erakutsi digu, alderdi guztiek aurkeztutako proposamenak, gutxienez, aztertu eta kontuan hartu behar direla uste baitugu, guztiok Leioarako zein leioztarrentzako onena nahi dugulako.

**PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak** honakoa adierazi du:

Urteko aurrekontua onartzeko aurtengo eztabaida honetan, uneotan bizitzen ari garen egoera ekonomikoaren larritasunaren inguruan mintzatzen hastea ezinbestekoa da. Gure familiei kalteak eragiten dizkien krisiaren aurrean gaude, eta etorkizunean eragin bikoitza izango du horrek, erakundeok diru gutxiago izango dugulako behar diren politika publikoak abian jartzeko, gure herriak zein hiriak eraikitzeke, eta herritarrak horrez guztiaz ohartuko dira.

Gaur osoko bilkuran aurkeztu den aurrekontu proiektuak badu, lehenbiziko aldiz historian, 1.658.425,91 euroko hazkunde negatiboa, hots, -%4,3 aurreko urtearen aldean. Aurrekontua eztabaidatzeko garaian oinarritzko datua dela deritzogu, egoera erabat ezberdina dela erakusten digulako. Ondorioz, alderdi politikook inoiz ez bezalako erantzukizunarekin aritu behar gara, eta hori da gaur egin behar duguna, alegia, erantzukizunez jokatu behar dugu: gure abstentzio kritikoa bitartez, aurrekontu proiektua onestea ahalbidetuko dugu. Izan ere, krisiari aurre egiteko eskura dauden tresna guztiak behar ditugu eta, horretarako, hobe dugu aurrekontu urriak izatea ezer ez edukitzea baino; urriak esan dut, bai, nire alderdia ez baitator horiekin bat. Argi dago horiek ez direla egungo egoeran alderdi sozialistak beharrezkotzat jotzen dituen aurrekontuak, ez edukian, ez itxuran.

Krisiak ahaleginak egitea eta adostasunez jokatzeko eskatzen du, guztien artean politika egokienak bilatu ditzagun. Horrekin batera, itun bat lortu behar da, eta gure alderdiak hori bera eskaini dio Udalari, idatziz. Gure prestutasuna zein proposamenak agerian utzi dizkiogu, baina ez da inolako itunik izan, ezta inolako erantzunik ere. Are gehiago, Ogasun arduradunak ez du aipatutako idatzirik jaso, bertan agertzen diren proposamenak azter daitezten.

Teknikari dagokionez, ongi gauzatutako aurrekontu proiektua da; zorionak, beraz, teknikari guztiei eta haien kolaboratzaileei. Dena dela, gobernu taldea osatzen dituzten alderdien ideiak baino ez ditu bildu aurrekontuak.

Aurrekontuak ezinbestekoak dira eskura ditugun bitarteko guztiak erabili behar ditugulako, eta nire alderdia horretan oinarritu da horiek ez ezeztatzeke. Halaber, arrazoi bera dela-eta aldaketa proposamenik ez ekartzea erabaki dugu, izan ere, logikoa denez, gastuaren euspen nabaria biltzen duen aurrekontua da eta, gainera, azken hori gauzatze-lanetan aritu ez denarentzat oso zaila da partidak mugitzea, ezinezko finantzazioak esleituz. Ez da demagogia egiteko unea, ganorazko eta aurretiko proposamenak gauzatzeko garaia baizik, proiektua gauzatzearen aurrean, alderdi sozialistak egin duen bezala.

Ildo horretatik, alkate jaunari esan nahi diot ez gaudela berriro ere beste batzuetan izan ditugun jarrerak jasateko prest, alegia, gure ohiko errealitatek urrun daudenak: batzuek aspaldiko gidoiei jarraiki ari direla dirudite, beste batzuk, ordea, diskurtsoa haiena egingo dute beren *pedigria* frogatzeko, eta gutxiengoa, boterera heltzeak dakartzan mugen atzean ezkutatu da. Nolanahi ere, alkatezari zuzendu nion gutunean egin bezala, alderdi Sozialistaren ideiak aditzera eman nahi ditut, kreditu orokorraren partidaren bitartez, urtean zehar martxan jar daitezten itxaropenarekin. Hori dela eta, gutxienez, entzun diezaguten, administrazioaren isiltasunaz baliatu baitira guk aurkeztutako eskaintzari ezezkoa emateko, eta hori guztia, gainera, gure gutuna irakurri duten jakin gabe.

Bi milioi euro ditugu gastatzeko gutxi gorabehera, eta dirua dagoenean, gehienez gastatu daitekeen muga edonon jar daiteke; baina dirurik ez dagoenean, ordea, ondo kudeatzen jakitea da garrantzitsuena. Argi dago aurreko urteen aldean euspenak murriztu behar direla, ez dago zalantzarik; Zailtasuna, ordea, zein partidak nahi ditugun aukeratzean datza, hau da,

bakoitzak zein motatako herri-diseinua nahi duen aztertzean eta zein irtenbide ematen diegun horiei krisi honetatik ahalik eta hoberen ateratzeko. Guretzat, inbertsioak horrenbeste jaitea ez da konponbidea, uneotan inbertsio pribatua izaten ari den jaitsiera garrantzitsuaren aurrean, politika publikoaren zeregina egoera hori hobetzen ahalegintzea dela uste baitugu, hura okertu beharrean. Horregatik guztiagatik, gobernu sozialistak Tokiko Inbertsioko Estatu Funtsa abian jarri du, udalek obra publikoetan inbertitu dezaten. Fondo horrek gehikuntza dakar, baina zaila da gehikuntza eragitea inbertsioak %43,2 jaitea aurreikusitako aurrekontu proiektu batean. Gure iritziz, inbertsioen kapituluan ez da murrizketarik ezarri behar, egoera ekonomiko ona duen udalerrria baita gurea, eta horregatik, zorpetzeko aukera dauka. Beraz, jarduera ekonomikoarekin aurrera egiteko, obra publikoetan inbertitzen eta gizarte-politikekin segitzeko zorpetu behar bagara, aurrera!

Gainera, behar-beharrezkoa da zenbait auzotan inbertitzea eta horietan obra publikoak gauzatzea. Hori dela eta, behin baino gehiagotan esan dugunez, Pinuetan edo Txorierrin plan bereziak aurrera eramane behar dira, baita Lamiakoko PERRIn sakondu ere, udalerrriak azken auzo horrekin duen zor historikoa behingoz ordain dezan.

Horrez gain, Espainiako Gobernuak udalerrri honi ematen dizkion bost milioi eurotik gorako kopuruarekin, beste gauzen artean, gure auzoetako integrazio-politikak bultzatzea espero dut. Gure iritziz, inbertsio publikoko alor hori da, hain zuzen, inoiz baino gehiago sustatu behar dena. Dena dela, aldi berean Eusko Jaurlaritza eta Aldundia euskal erakundeen laguntza faltan sumatzen da bertan.

Aurrekontu proiektuaren inbertsioen kapituluan inbertsio bakarra ageri da gure Aldundiaren eskutik, zehazki 300.000 eurokoa edo berrogeita hamar milioi pezetakoa; uholdeek eragindako kalteei zuzendutako diru-laguntzei dagozkien horiek. Bada, inbertsioetan emandako beharokada itzela kontuan hartuta, gutxiegi iruditzen zaigu aurrekontuan %4,3ko murrizketa nabarmena jasan duen udalerrri bati Foru Aldundiaren diru-kutxek hirurehun mila euro ematea.

Gure iritziz, Udalak Aldundiarekin duen hitzarmen- eta eskakizun-maila altuagoa izan behar du, bai udalerrriak berak, bai bertan bizi diren herritarrek etekin handiagoak atera ditzaten. Era berean, positibotzat jotzen dugu krisi garaian prestakuntzaren eta enplegua sortzearen aldeko apustua. Horregatik guztiagatik, bat gatoz helburu hori duten politiketan gastuak igotzearekin, eta benetan penatu egiten gaitu hezkuntza alorrean gertatutako izoztea, baita programa berrietan hori sartu ez izana ere.

Badakigu egindako doikuntza ezinbestekoa dela, baina oker egin dela uste dugu, inbertsioetan gertatu baita doikuntza hori, eta hezkuntza zein gizarte-politikak dira, gure ustez, oraintxe sustatu beharrekoak, egoera honetatik ahalik eta sendoen ateratzen lagunduko gaituztenak direlako.

Jakin badakit esango didazuela bai Hezkuntzak, bai Gizarte Ongizateko alorrak %8ko eta %12ko igoerak izan dituztela, hurrenez hurren; horregatik, zuen erantzunak entzun aurretik zerbait esan nahi dut. Hezkuntzan izandako igoera Enplegu alorrari dagokio; politika publiko zein zuzeneko diru-laguntza guztiak izoztuta daude, beraz, eta batzuek, gainera, murrizketa jasan dute, alderdi sozialistak aurkeztutako zuzenketa baten ondorioz eta oraindik ere behar-beharrezkoa zaigun balioen hezkuntza, esaterako. Gizarte Ongizatearen alorrari dagokionez, lankidetzarako eta laguntza emateko politikak murrizketa garrantzitsua jasango duela adierazi nahi dut aurrena, ehunekoetan, behintzat.

Gure udalerrriak lankidetzarekin lotutako gaietara diru-kopuru garrantzitsua zuzendu zuen aurreko agintaldietan, eta sozialistok jarrera hura txalotu egin genuen. Egun, aldiz, baztertu egiten den lehenbiziko laguntza da, hain zuzen, gutxien dutenei elkartasuna adierazteko garaia denean. Hortaz, aurrekontuak proposatzen duen politika guk herriari buruz dugun ideiarekin bat ez datorrela uste dugu. Benetan harritu egin gaitu udal honetan beren burua ezkertiarizat dituzten interesei eta horregatik harro daudenei erantzuten dien aurrekontua izatea. Hezkuntzan bezala, sail honetan zuzeneko laguntza izoztuta dago, hain zuzen, premiak gora egiten ari diren

unean. Dena dela, gure familiei arreta eskaintzeko tresnak diren diru-laguntzak eta gizarte-larrialdietako alojamentua izoztea erabaki du gobernu taldeak. Halaber, gehitu beharra dago GPLek, Eusko Jaurlaritzak diru-kopuru bat esleitzen diela eta %12ko igoera izan dutela kontuan hartuz, oraindik ere udalerraren beharrak ase gabe jarraitzen dutela eta ezin dutela legearen aurrean herritarrei dagokien kopurua bete.

Berdintasunerako politikan gauza bera gertatzen da: izoztea. Gai honetan benetan larriena zera da: ez indarkeria, ez hori praktikatzen dutenak ez dira izozturik egongo. Beraz, gai honen inguruko politika publikoak egiten jarraitu beharra dago, baita horiek finantzatzen ere. Gizarte Ongizatean igoera bat antzematen bada ere, edukian ez dago igoerarik, aipatutako gorakada horrekin zerikusirik ez duten bi arrazoiengatik gertatu delako: alde batetik, GPLetan (Eusko Jaurlaritza) diru-kopuru gehiago ipini da; bestetik, Menpekotasunaren Legea bete dadin, etxeko laguntzan ere igoera nabarmena izan da. Ondorioz, aurkitu dugun politika berri bakarrak etxean psikomotrizitate-arreta jasotzeko zerbitzua (30.000 euro) eta drogamenpekotasuna prebenitzeko politika izan dira. Gainerakoan, izozteak izan ditugu.

Beraz, laburbilduz: urte zaila izango denari aurre egitea ahalbidetuko dizkiguten kontu publikoak aurrera eramateko aukera dugula uste dugunez, alderdi sozialista abstenituko da gaurkoan. Dena dela, argi gera dadila ez gaudela ados aurrekontuen aurreproiektu hau onartua izan dadin erabilitako moduekin, ezta bertan egindako banaketarekin ere, une hauetan inbertsio publikoa eta gizarte-politika sustatu behar direla uste baitugu.

Azkenik, adierazi nahi dut nire alderdiaren ikuspuntua argi gelditu dela eta, beraz, ez dugula berriz ere gai beraren inguruan mintzatzeko asmorik. Hori dela eta, jai zoriontsuak eta urte berri on izan dezazuen opa dizuegu. Halaber, ez ditut haurdun dauden kideak ahantzi nahi: Elsa eta Bea, zorioneko erditzea opa dizuet, eta zuen seme-alabek bakean eta askatasunean biziko den Euskadi bat eta, zergatik ez, Leioan haurreskola bat ezagutzeko aukera izan dezatela espero dut.

### **EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiurrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

PPk aurkeztutako zuzenketen inguruan ez naiz banan-banan mintzatzeko: gehien ezagutzen ditudan sailen inguruan, alegia, gure alderdiak erantzukizuna duen sailen inguruan gauza pare bat bestetik ez ditut esango.

Hezkuntzari dagokionez, ez gaude diru-laguntza linealekin... ados, eta laguntza ekonomiko orok, edozein dela ere, errenta mailarekin lotuta egon behar duela uste dugu. Horregatik guztiagatik, politika honek gizarte-zerbitzuen ardura izan behar duela deritzogu, larrialdiko eta bestelako laguntzak diren bezala. Hezkuntza teknikariari dagokionez, gutxinaka-gutxinaka sailean sartuko den pertsona bat hartzea erabaki zen azkeneko Hezkuntza Batzordean. Bestalde, Hezkuntzaren Eskualde Azoka bat eratzea ideia bat da, baina epe ertainean/luzean, etorkizunean izango dugun egoera ekonomikoa egokia bada, asmo handiagoko proiektu bat daukagu hezkuntza alorrean. Hari esker, Leioa hiri hezitzaile gisa duen eskarmentua jendaurrean erakutsi dezakegu eta, bide batez, bestelako eragileak kongresu batera edo nazioarteko jardunaldietara gonbidatu. Dagoeneko aztertu den ideia da hau, baina aurten ez dugu paperean bilduko egoera ekonomikoak uzten ez duelako, eta ez zaigu ziurtatu gabeko zerbait saltzea gustatzen.

Birziklatzeari eta iraunkortasunari buruzko kanpaina da Tokiko Agenda 21ek biltzen duen zeregin garrantzitsuenetako bat; ez ahantzi gure udalerriko ikastetxe guztietan antolatzen diren ekintza guztiak gaurkoturik daudela. Eskola-jazarpenaren inguruan, esan behar da berdintasunarekin lotutako baloreak sustatzen dituzten politikak argi erakusten dituzten jarduerak egiten direla, hain zuzen, uneotan GEUS Udalarentzat garatzen ari den hezkuntza baloreekin lotutakoak.

Gizarte Ongizateko, etab. gizarte gaiei buruz, ez dut uste gure udalerrian etxebizitzako udaleko bulego bat eratzea beharrezkoa denik. Izan ere, gizarte gaietarako

bulegoan ematen den informazioa soberakoa da jendeak lehen eskuko informazioa benetan jaso dezakeen bulegoetara zuzentzeko. Gainera, ez gaude prest gastuak bikoizteko.

Laguntza telematikoko programei, etab. kasuei, anorexiari eta bulimiari buruzko aholkularitzari, familiako indarkeria kasuetarako aholkularitzari dagokionez, baliteke onetsi berri dugun berdintasun plana berrikusi behar izatea. Izan ere, egoera horien aurrean jarraitu beharreko zenbait pausu argi eta garbi agertzen dira. Halaber, gure Gizarte Zerbitzuetako bulegoetan tratu txarrak pairatu dituzten emakumeei zuzendutako aholkularitza juridiko zein psikologikoa dagoela gogoratu behar dugu. Drogamenpekotasunaren, tabakoaren eta alkoholaren inguruko programak izateaz gain, drogamenpekotasuneko alorreko teknikariak hartzeko lanetan ari gara, gure udalerrria oraindik ere zenbaitetan mota hauetako jardueretan edo drogen analisisen ingurukoetan puntakoa izaten jarrai dadin.

Bestalde, oraintxe ari gara immigrazioa laguntzeko programaren nondik norakoak aztertzen, eta urtearen erdialdea heldu baino lehen, emigrazio plan bat onartu izana espero dugu. Gainera, immigrazioko teknikari espezializatua izan dezagun irtenbideak bilatzen saiatzen ari gara. Ez hori bakarrik; jarduera mota horiek aurrera eramateko lokalak prestatzen ari dira. Honekin guztiarekin esan nahi dut nahikoa lan egiten ari garela gai honen inguruan eta, beraz, ez dela beharrezkoa ez dugun dirurik asmatzea. Izan ere, osaba Tomasek ez dizkigu 1.160.000 euro emango, ez baitugu diru-sarrerera handi horiek izatea aurreikusten. Era berean, gogorarazi behar dugu Udalbatza honek arautu ahal duen diru-sarrereren zerrenda txikia eztabaidatzeko garaian, tasak, esaterako, proposamen guztiak horiek beherantz ezartzearen alde agertu zirela. Horregatik guztiagatik, ezinezkoa da ez dugun zerbaiten inguruko birbanaketa politikarik egin.

Ildo horretatik, alderdi sozialistak gure ideologia ezkertiarra zalantzan jartzeko erabili duen umore beltzari erantzun nahi diot, ezkerretik datorren jarduerak ez baitu zerikusirik dialektikarekin, hots, ni ezkertiarra naiz edo ez naiz esatearekin. Aitzitik, ekintzekin lotutako gaia da eta, ondorioz, gizarte gaietara zuzendutako partiden igoera eskasa izan dela uste badugu, aukera bakarra diru gehiago nondik atera dezakegun eztabaidatzea da, oposizioak dirua nondik aterako den eta, gizarte-politika hobetze aldera, hori nola inbertituko dugun zehaztuko dituzten zuzenketak aurkeztuz horretarako.

Inbertsioen inguruan, alderdi sozialistaren asmoa oraindik argi ez dugun finantziazio eta eboluzio baten bitartez Leioan bost milioi euro eta koska bat inbertitzea bada –kupoaren arabera dagokiguna baino nahikoa gutxiago–, ez dugu uste krisia konponduko dugunik obra publiko jakinak garatuko dituzten enpresa pribatuei dirua emanaz, batzuetan aho batez onartuak izan gabe aurrera eramaten direnak, gainera. Eztabaida dezagun egin nahi duguna, baina denbora behar dugu horretarako. Halere, denborarik ez dugunez, funtsa hauek nola banatu ikusi beharko dugu, horiekin ados nagoen arren. Dena dela, ez dut uste Udalaren inbertsio politikan horri buruz sakondu behar dugunik.

Krisiarekin amaitzen laguntzeko Udalak duen eragina eskasa dela esango nuke nik, are gehiago –beharbada alderdi sozialistak beste batzuek baino hobeto ulertu beharko luke– kapitalismoaren egiturazko krisiaren aurrean gaudela kontuan hartuz: batez ere Estatu Batuetako finantza-enpresa handiek hartutako hozturaren ondorioz doministikuka ari gara gu, hain zuzen, irabaziekin geratzeagatik bakarrik munduan euren miseria banatzeko gai diren horien erruagatik. Hori dela eta, ezin diogu gure udalerrriak uneotan dirua biltzeko duen ahalmen eskasari krisitik ateratzeko ezintasuna leporatu. Izan ere, kargu altuagoak dituztenek zerbait egin dezakete politika fiskal orokorraren edo immigrazio, enplegu, etab. bestelako politiken bitartez, betikoek krisia ordaindu ez dezagun. Era berean, oso larria iruditzen zait hori leporatu digunak bere burua sozialistatzat izatea, gure alderdia umiltasunez politika ezkertiarra egiten saiatzen baita horren ezkertiarra ez den beste alderdi batekin batera; herri hau ahalik eta hobekien aurrera eramateko aritzen gara elkarlanean.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak honakoa adierazi du:

Nire helburua ez da aurrekontua defendatzea, gaintik azaltzea baizik. Hori egin ondoren, PPko zein PSE-EEko bozeramaileek esandakoari erantzungo diot, betiere erantzunak sortarazteko asmorik gabe. Dardoei eusten eta horiek zorrotzegiak ez izaten ahaleginduko naiz, beraz; baten bat egongo da, baina ez da zorrotzegia izango.

Udaleko aurrekontua 36.743.000 eurotik gorakoa da, alegia, %4,3 txikiagoa 2008. urtearen aldean. Horrek guztiak 2005 eta 2006ko aurrekontuetara garamatza, batez ere 2006ko aurrekontura. Kontuan hartu behar da bai 2007an, bai 2008an, onaldia izatearekin batera, Udalkutxako ekarpenak biderkatu egin zirela. Urtetik urtera hego-ekialdeko Asian gaineratzen ari ziren herrialdeetako hazkunderen parekoetara heldu ginen kasik gurean, urtero izugarri haziz joaten ziren Udalkutxekin ixten baikenuen. Egun ez da halakorik izango, baina; beste urte batzuetako aurrekontuetara itzultzen ari gara, bereziki 2006ra.

Nolanahi ere, Soinu Atadia Fundazioaren aurrekontua ia bi milioi eurokoa da, %7,1eko igoera izan duela; halaber, Euskara Zerbitzua erakunde autonomoaren aurrekontua milioi batetik gorakoa da, ia milioi bat eta berrehun mila eurora heltzen baita, hots, %3,2 igo da aurreko urtearen aldean. Igoera hauek erakunde biak ongi kudeatu direlako eman dira; izan ere, Udalak erakunde autonomo hauei emandako ekarpena ez da 7,1 igo, 3,2 baizik. Igoera neurritsuagoa da, beraz, baina egitekoak behar bezala gauzatzen ari dira, beste erakunde batzuetatik –batez ere Eusko Jaurlaritzatik– baliabideak jasotzeko gai direlako. Nolanahi ere, eskertzekoa eta txalotzekoa da erakunde horietako kudeatzaileek eta arduradun politiko zein teknikoek baliabideak lortu ahal izateko egiten duten lana. Hortaz, Udalak Soinu Atadia Fundazioaren aurrekontuaren %50 ipiniko du, 980.000 euro gutxi gorabehera; Euskara Zerbitzua Erakunde Autonomoarenean, aldiz, zertxobait gutxiago jarriko du, %45, hots, 540.000 euro. Horrek guztiak, 38.000.000 eurotik gorako aurrekontu bateratura garamatza, Leioako herritar guztien ahaleginei esker lortu dena.

Bestalde, diru-sarreraren kalkulua zuhurra eta errealista dela baina optimismo kutsu bat duela esango nuke nik, botila erdi hutsik ikusi beharrean, erdi beteta ikusten baitu. Aipatu dudan moduan, optimismo kutsu batekin aurreikusi diren diru-sarrerak gauzatzen ote diren jakiteko, 2009. urtearen zain gelditu beharko gara. Izan ere, 2008an aurreikusitakoaren aldean, kapitulu askotan kalkulu altuagoak egin diren arren, benetan 2008an gauzatu direnak baino txikiagoak dira, hau da: 2008 urteak berak erakutsi digu aurrekontuan egin genituen kalkuluak oker zeudela, krisia agerian egon den urte bat izan bada ere, fiskalki hobea izan delako. Ondorioz, 2007 amaieran aurreikusi genituen baino diru-sarrera handiagoekin itxiko dugu urtea. Horrek guztiak, aurrekontu zuhurra eta errealista bat egitera bultzatu gaitu, 2008an aurrekontuan bildu genituen eta berez urte horretan bertan izan ziren diru-sarrerak kontuan hartuz gauzatu dena. Dena dela, aurrekontu honek ondare kopuru handia saltzea eskatzen du zenbait inbertsio-politika aurrera eramanez ahal izateko. Jakin badakigu ez direla garai onenak ondareak saltzeko, baina ohiko zein udaleko diru-sarrez gaindiko ahaleginak egitea eskatzen dituen aurrekontua da, kontuak bat etor daitezkeen eta oraindik ere gastatzeko ahalmen handia izaten jarrai dezagun.

Ez ditut diru-sarrera bakoitzaren zergatiak banan-banan azalduko, amaierarik gabeko ohiko bilkura bat izango bailitzateke bestela. Nolanahi ere, nabarmendu nahi dut kapital-transferentziak izeneko kapituluak beste erakunde batzuetatik zein ekarpen pribatuetatik jasotzen diren diru-laguntza jakinen diru-sarrerak biltzen dituela, batez ere beste erakunde batzuen eskutik datozenak; besteak beste, Gobernu Zentrala, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak. Horiek emandako diru-sarrerak zenbatespen errealistetan oinarrituak dira, aurrekontu teknikak berak ez baitu hemen Olentzerori edo Errege magoei gutunik idaztea uzten: inork ezin du bere ustez jaso ditzakeen gauzak hemen idatzi hori horrela gertatu daitekeela ziur ez badago. Zenbait lizentzia baimendu daitezke, baina ezin dute goian aipatutako gaiari buruzko edukirik izan. Nolanahi ere, kapitulu honi esker, amaieran ekitaldi biribilduago bat eskaintzea espero dugu, urte osoan zehar Udalak udalaz gaindiko erakunde ezberdinek ezarritako diru-laguntza ezberdinak

jaso ohi dituelako; horrekin batera, edozein gai eremutan proiektu zehatzak aurkezteagatik diru-laguntza garrantzitsuak jasotzeko aukera ohi dago, eta berez jasotzen dira horiek.

Halaber, jakin badakigu bai Eusko Jaurlaritzak, bai Bizkaiko Foru Aldundiak ahalegin handiagoak egingo dituztela haiei dagozkien sektore-politikak gauzatzeko. Gainera, diru-kopuru bat jarriko dute, udalen esku geldituko dena, urtero bezala euren proiektu jakinak aurkez ditzaten. Dena dela, partidak bikoiztu egingo dira, hain zuzen, hornitze- eta saneamendu-lanei, gizarte-politikako jarduerari, degradatutako eskualdeak birgaitzeari, bide publikoetan inbertitzeari...dagozkienak.

Finean, Udalak jaso ditzakeen programa berriak zein zaharrak dira hauek, baina aurrekontu teknikak berak ez du aurreikus daitezkeen diru-sarrerarik islatzen uzten erakundeek horiek baieztatzen ez dituzten bitartean. Gainera, egun horien baieztapena jasotzea ezinezkoa da, urtean zehar ateratzen diren eta Udalek jaso ditzaketan diru-laguntzei buruzko deialdiak ezartzen dituzten arau ezberdinetan oinarrituz garatzen diren programak baitira.

Gastuen inguruan, zera esan nahi dut: langileen gastuak %12 igo dira, LPZ berria onartu baita. Horren bitartez, enpleguaren eta dagokion aurrekontu-kontsignazioaren aldeko apustua egin dugu. Halaber, Udalaren langileen lan eta soldata baldintzetan zein ekonomikoetan Udaltzatek izandako eraginaren ondorioz ere eman da igoera.

Udalen 2. kapituluak zinemara joateko diruarekin ordaintzen den bertako gastu arrunta gehiegi ez ukitzeko eta ez galtzeko obsesioa daukate. Bada, kapitulu honetan %1,8ko igoera eman da, 2009rako aurreikusitako KPtik oso azpitik dagoena; gastuaren euspen handia dago 2. kapituluan, hortaz.

Gastuekin jarraituz, gobernu organoetan %0,3ko murrizketa ageri da, funtsean gizabanakoari zein udal alderdi politikoei egindako ekarpenen izozteak direla-eta gertatu dena. Alor ekonomikoa %10,4 jaitsi da, batez ere kreditu orokorraren %5ari egindako murrizketaren ondorioz: zehazki, Alkatearen esku uzten den hori, gerora proiektu ezberdinen artean banatu dadin. Oraitxe bertan ez dakit kreditu orokorraren %5 zenbat den, baina aurreko urteko aurrekontuaren aldean alor ekonomikoa %10,4 jaitea eragin du horrek.

Alor juridikoa %2,1 jaitsi da eta segurtasunekoak, aldiz, %18,6 igo, funtsean, Udaltzain berriak kontratatatu direlako. Hezkuntza, trebakuntza, enplegu, hizkuntza-politika eta euskarako alorrak %8,3 egin du gora; batez ere LHIKren eta enplegu tailer berriaren artean banatu da igoera hori. Auzolanaren eta trebakuntza, enplegu, tokiko garapena eta merkataritza politiken kapituluaren kasuan, udal aurrekontuak asmo bat baino ez du islatzen, alegia, nahi den diru-kopurua jar daiteke, mugarik ez baitu horrek; berdin dio berrehun mila euro edo bi milioi euro jartzea. Krisi urte batean, edozein unetan motz gera daitezkeen aurrekontua dela uste dugu. Nolanahi ere, alor horiek dira funtsean lehen aipatu ditudan kapital-transferentziak jasoko dituztenak. Udalez gaineko administrazio-erakundeek, Gobernuarenak edo Aldundiarenak, kasurako, gure esku jartzen dituzten programak dira horiek, udalek zerbitzuak kudeatu ahal izateko diru horren banaketan parte har dezagun. Askotan, gainera, aipatutako zerbitzuak askotan ez dagozkio udalari, udalez gaineko erakundeei baizik. Urte askotan, horietan muturra sartu dugu guk, eta orain, barkatu baina oso zaila da handik ateratzea. Dena dela, berriro diot ez dagozkiola udalari, baina zuzen jokatu behar dugu, eta kontuan hartu behar dugu Udalak gauzatzen dituen baina hari ez dagozkion arloak hamaika direla. Zenbait arlotan, %70eko igoerak ageri dira aurrekontuan. Dena dela, horrek berez krisi urte batean bestelako erakundeek jarriko duten diruarengana jotzeko borondatea erakustea du xede, dirua udalen esku gera dadin euren proiektuak aurkeztu ahal izateko, eta azken horiek udalez gaineko behar bezalako finantzazioa izan dezaten.

Espero dut 2009an egingo diren Batzorde ezberdinetan proiektu hauek aurkezteko garaian, alderdi ezberdinek ideia berriak ekartzea; alderdiari berari bururatu zaizkion edo gobernatzen duzuen udaletan aplikatzen ari diren, edota entzun dituzuen baina guk lehenbiziko eskutik horien berri ez ditugun ideiak izan daitezke. Esan dudan bezala, aurten funts hauetara jo

dezakegu, baina horretarako proiektuak aurkeztea ezinbestekoa da, dela gobernu taldearen eskutik, dela Udalean dagoen edozein alderdiarenetik.

Osasuna eta Gizarte Ongizatea arloan %11,8ko igoera izan da ere bai, adinekoei eta gizarte-politikei zuzendutako diru-kopurua %21 baino gehiago igo da; garapenerako lankidetzan, berriz, ez da murrizketarik izan: %0,7 izaten darrai. Ez dezagun ahortzi zenbait politikatan konpromisoak ez direla kopuru absolutuetan ematen, erlatibozkoetan baizik.

Udal aurrekontuak, gorabehera txiki batzuk izan arren, aurrekontuaren %0,7 islatzen du. Izan ere, udal aurrekontua murriztean kopuru absolutuei eutsiko bagenie, %0,7 zuzendu beharrean, %1,5, %3,6 edo %0,9 jarriko genuke. Aitzitik, aurrekontu honek garapenerako lankidetzari %0,7 zuzendu dio.

Kulturan %4,1eko eta Kiroletan %2,4eko igoerak eman dira; zerbitzu orokorretan, ordea, %31,6eko gorakada izan da, batez ere Leioa digitalizatzeko Gida Plana dela-eta, hots, udal aurrekontuetan e-Administrazioa eraikitze aurrerapausoa dena. Leioa digital bat eratzeko ametsa egi bihurtuko duten informazio-autobide berrien sareak mantentzeko kontratuek eragina izan dute ere igoera horretan. Horrek guztiak justifikatzen du %31,6ko, hots, 200.000 eurotik gorako igoera.

Bestalde, 6.500.000 euroko inbertsio kapitulua dugu, Leioarako egokia eta benetakoa dena. Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia izan naizen 8 urteetan, Udalaren inbertsio aurrekontuak proposatzea egokitu zait; beraz, aski ongi dakit zortzi urte horietan Leioak inbertitzeko izan duen ahalmena eta, horrexegatik, diru-sarrerak arruntei gastu arruntak kenduta, uste dut Leioak kudea dezakeen inbertsio erreala sei milioi eurokoa dela. Ondorioz, ezinbestekoa zaigu ezohiko diru-sarrerak bilatzea eta txoko guztietatik bitartekoak lortzen ahalegintzea. Bi urtez, bederatzi milioi euroko inbertsioak bizi izan ditugu gutxi gorabehera, baina nahiko irrealak izan dira horiek; 2006 eta 2007 urteetan, diru-sarrerak oso ezohikoak izan dira, eta horiek Leioa bezalako Udal batek kudeatu ezin ditzakeen inbertsio aurrekontuak egitera bultzatu gaituzte. Edonola ere, gure helburua aurrekontu zehatza aurkeztea izan da. Horren bitartez, gastu arruntak kenduta lortutako diru-sarrerari esker, diru-sarrearen aurrekontu honen bitartez sei milioi eta erdiko inbertsioa izatea espero dugu. Halere, inbertsiora zuzendutako baliabide ekonomiko gehiago edukitzeko itxaropena dugu, baina aurrekontuaren likidazioa amaitutakoan, 2008ko martxoan gutxi gorabehera, eta Udalaren soberakina ezagutzen dugunean jakingo dugu hori.

Egun, gainera, aurrekontu teknikak ez du soberakinak aurrekontuetara zuzentzea uzten; beraz, ezin dugu zera esan: «Begira, bost edo hamar biderreko soberakinak izatea aurreikusi dugunez, sei milioi eta erdiko inbertsioak egin beharrean, hiru milioi euroko soberakina jarriko dugu zuzenean»; bada, hori egitea ezinezkoa da aurrekontu teknikak galarazi egiten duelako; alegia, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa onartzen ez den bitartean, ezin dugu soberakinik aplikatu. Horri esker, Udalak duen inbertitzeko ahalmena handitu egingo dela ziurtatzen da.

Edonola ere, sei milioi eta erdiko euro inguruko inbertsio-kapitulu honi esker, San Bartolome historikoa osorik birmoldatzeko lanak egitea bermatuko dituzten inbertsioak aurreikusi dira: gune nagusia, ikastetxe publikoaren inguruko hiritar-gune osoa, Kultur Etxea, ermita eta San Bartolome plaza. Hitz batez, helburua auzoaren goiko aldea birmoldatzea da; halaber, ur-horniduran eta saneamendu-lanetan inbertitzen jarraitu beharko dugu, udalerrriak azken bederatzi urteetan jasan duenaren ordainetan, baita bide publikoetan ere; oro har, hiria berritzeko jarduerak diren guztietan. Soberakinekin, Ikea Mendiko lotura mekanikoa jartzea espero da. Horrekin batera, Garraio Partzuergoaren eskutik zortziehun mila euroko diru-sarrerak aurreikusi dira Txorierriko lotura mekanikoa ipintzeko. Ikus daitekeenez, lotura mekaniko horiek egi bihurtu daitezkeen eta krisiari aurre egin diezaiozun ahalegin handiak egiten ari garela erakutsi du aurrekontuak. Azkenik, ahal bada, Txorierrin aurreikusita zegoen hiri-birmoldaketa egiteko jarduerak aurrera eramaten saiatuko gara.

PPko eta PSE-EEko bozeramaileek esandakoaren inguruan, beste urteen aldean, ezer gutxi edo ezer aldatu ez dugula erantzun nahi diot PPri, eta horregatik ez naiz errepikakorra izango, ezta astuna ere. Egia esan, ez ditut alderdi popularrak aurkeztutako zatizko zuzenketak egiaztatu, baina jatorrizkoa den zuzenketaren bat salbu, aurreko urteetan aurkeztutakoak errepikatu egin dira.

Ziur naiz egindako proposamen batzuk jarduera jakinetan islatuta ikusiko ditugula 2009ko aurrekontuaren garapenean. Ildo horretatik, Iñakik (EB-Berdeak alderdiko Iñaki Gomendiourrutia Sáinzek) hezkuntza arloko teknikariari egin dio erreferentzia; baina, horrez gain, UPV/EHUko campuseko eta Zientzia Parkeko hobekuntzetan kolaboratzeari buruz mintzatzera ausartuko nintzateke, baita bertan nola parte hartu eta lagundu dezakegunaren inguruan ere. Gainera, Udalak zenbait eremutan dituen ekipamenduak zertarako erabiliko diren erabaki beharko dugu eta, zergatik ez, ingurumen gela bati buruz hitz egin, betiere hori gauzatu ahal bada eta udal finantzaziotik haragoko finantzazioa lortzen bada horretarako. Ziur asko birziklatzeari eta iraunkortasunari buruzko eskolako kanpainak izango ditugu, jadanik gauzatu direlako, baita familia indarkeriaren kasuetarako aholkularitza ere, sailean bertan horren inguruko programak baitaude dagoeneko. Baliteke zaraten mapa gauzatzea, Tokiko Agenda 21eko tokiko ekintza planak hori bera proposatzen duelako. Halaber, baliteke tokiko merkataritza sustatzeko jarduerak aurrera eramatea eta horretarako, beste erakunde batzuetatik jasotako diru-laguntzei esker lortutako partida bat zuzentzea espero dut.

Finantzazio proposamenei dagozkienez, inola ere ez dut uste diru-sarrerren proposamenak teknikoak direnik, izatekotan, politikoak baitira horiek; hau da, Udalak gastuen politika bat eta diru-sarrerren politika bat dauka, eta norbaitek gastuak handitu edo berriak sartu nahi baditu, diru hori nondik aterako duen, finantzaziorik gabe utzi nahi duen alorra edo diru-sarrerak nondik lortu nahi dituen azaldu behar du. Izan ere, teknikariek oso ongi egiten dute beren lana, baina askotan, aurrekontuak gauzatzean, politikariengana jotzen dute aurrekontuak zertarako erabiliko diren eta nondik aterako diren esan diezaieten. Lanerako ahalmen handia, borondate itzela, lana zein lan egiteko gogoak bultzatzen dituen programa informatikoak dituzte; baina hori guztia ez da nahikoa aurrekontu bat gauzatzeko, aurrekontu batek politikaren eragina baitauka gastuei eta diru-sarrerei dagozkien eremuetan.

PSE-EEko bozeramaileak esandakoari erantzunez, ez nekien alkatearekin gutun bidezko harremana izateko horrenbesteko interesik zenutenik, alegia, gerora Besteiro moduan igarotzeko, behar bezala errautsi gaituztenean, ondorengoek gure arteko gutunak berreskuratu eta hemendik berrogeita hamar urtera argitara ditzaten. Honekin guztiarekin zera esan nahi dut: gauza garrantzitsuak esateko beharra izan dugunean, telefonoa hartu eta deitu zaituztegu, zuzenagoa iruditzen zait niri. Aurreko udaberrian izandako uholdeen egunean esan nizuen, baita askotan ere: telefonoa hartzen dut hitz egin daitezkeen kontuei buruz zuzenean mintzatzeko. Beraz, anekdota txikiak baino ez diren praktika horiek ekiditen saiatuko naiz, izan ere, jakin badakigu administrazio batzuetako langileek ez dutela hitzik gurutzatzen euren artean, eta erregistrora doazela esan nahi dutena adierazteko. Hori guztia arazo larria dela uste dugu guk, administrazioaren funtzionamendua oztopatzen baitu.

Edonola ere, buruz ari naiz, baina gutunak alderdi sozialistak aurrekontuak gauzatzeko unean haren iritziz benetan kontu hartu beharreko arloak biltzen zituela uste dut. Halaber, hainbeste aldiz entzun dugun izozteari erreferentzia egiten zion, baita etxebizitza politikari, gizarte-ekintzako politikei eta irisgarritasunari buruzko politikei ere; zenbait auzo aipatzen zituen, baina proiektu jakinik proposatu gabe. Nolanahi ere, lan egiteko ildo zehatzak eta alderdi sozialistari nabarmentzea gustatuko litzaizkiokeen irizpideak biltzen zituen.

Nire ustez, 28 urtez udal aurrekontuak gauzatzen egon ondoren, nire ardura nagusia horien artean loturak ezartzea da; ez ezazue harrokerizat har, mesedez: uste osoa dut horretan. José Manuel Toledok parte hartu zuen azken hauteskundeetako telebista eztabaida batean, lau urtera begirako proposamenak edo urte batera begirako aurrekontu bat egitea ezinezkoa

genuela esan zuen, Leioa hemendik hogeia, hogeita zortzi eta hogeita bost urtera izango denaren ikuspegian oinarritzeko ohitura baitugu, eta aurrekontuak urtetik urtera loturik daudelako.

Ildo horretatik, herriaren beharrak, eskaerak eta udalak dituen aukerak ongi ezagutzen ditugu, baita gainerako alderdiek dituzuen interesak ere. Zehazki, bidali zenidan gutunak alderdiak dituen balore eta interesak nabarmentzen ditu. Ondorioz, gobernu taldea osatzen dugun aldetik, ideia horiek biltzeko eta aztertzeko eginkizuna gure gain hartzeaz aparte, aurrekontu batean bildu beharko genituzke horiek, modurik egokienean. Horrela, aurrekontu eztabaida bati ekingo genioke, izapidetze arrunt baten bitartez; alegia, Ogasun zinegotziak aurrekontuak aurkeztuko lituzke Batzordean, proiektu zehatzak bilduko zituzten zuzenketak aurkeztuko lirarteke, ideia zehatzekin eta proposamen jakinekin, horiek aurrekontuan sartzeari buruz eztabaidatuko genuke eta, azkenik, zuzenketa horiek onestea edo ez onestea erabaki.

Zapaterok hori bera egin du Estatuaren Aurrekontu Orokorretan, baina gauzatxo bat gehitu dio: ez dauka gehiengoa lehendik ziurtatuta, hots, Zapaterok ez du ez Josu Erkorekarekin, ez parlamentuko inolako bozeramailearekin, ezta Raxoi berarekin ere bilerarik ospatu aurrekontuaren ildo nagusiak eztabaidatzeko. Bere aurrekontu proiektua gauzatu du, eta handik aurrera, anabasazko egoera edo deskribatu duzun krisia dela-eta, akordioak batzeko beharraren ondorioz, bere proiektua aurkeztu du eta aurrekontuak landu dituzten batzorde ezberdinetan babesa bilatzen ahalegindu da. Beraz, Zapaterok egin moduan aritu gara gu; gainera, kontuan hartu behar da gehiengoa dugula aurrekontuak zuzenean aurrera eramateko. Halaber, Zapaterok bere aurrekontu orokorrak gauzatzean erabili duen ohiko teknika bera erabili dugu, gutunarekin edo gutunik gabe; izan ere, ez da aurretik bozeramaileekin bildu politika ekonomikoei buruz mintzatzeko, eta nik dakidala, ez da gutunik izan. Egia esan, ez dut uste hori eszenaratzea beharrezkoa denik.

Aipamen zehatzagoi dagokienez, estatuko funtsen inbertsioak jaitsi direla baieztatzea kontraesanetan erortzea da, 2009an eta itxitako aurreko ekitaldietan aurrekontu-kontsignaziorik izan ez duten proposamenak aurkezten baitzaizkio estatuko funtsari. Horregatik guztiagatik, udal ezberdinetako foro desberdinetan, edozein alderdik osatua bada ere, teknikarien zalantzen aurrean, zera galdetzen diogu geure buruari: zer aurkeztu dezakegu urtarrilak 24 baino lehen, Errege Dekretua behar bezala bete dadin eta urte batean gauzatu daitekeen zerbait izan dadin? Badirudi krisiak 2009an iraun behar duela soilik, baina uste baino luzeagoa izango da, eta Udal batek abian jartzen dituen proiektuak bederatzi hilabete baino gehiago igaro ondoren gauzatu ohi dira; izan ere, martxoan hasi eta abenduaren eta martxoaren artean amaitu behar dira horiek; dena dela, azken kontu hori oraindik argitzeke dago.

Edozein kasutan, 2009ko aurrekontuan bildu ez diren proiektuak eramango ditugu. Halaber, kontuan hartu beharra dago Udalak ez gaudela ohituta gauzatzeke dauden proiektuak karpeta batean gordetzera, aingeru zaintzaile bat agertzearen zain, beste arrazoien artean, diru gehiegi ordaintzea dakarrelako horrek; askotan laguntza teknikoek izandako jarrera oroitzearekin nahikoa duzue: proiektua aurkezteagatik gauzatze-materialeko aurrekontuaren %75 eskatzen dute, eta inor ez dago laguntza teknikoen ordainsarrietara zuzendutako dirurik ordaintzeko prest proiektuak gauzatzeko aukera dagoela benetan aurreikusitako ez bada.

Mintzaldiak berak kutsatu egin du auzoetara zuzendutako inbertsioen inguruan aurrekontuak bildu duena: auzoetara zuzendutako inbertsioak berriro egingo dira; halere, oinarritzekoak direnak jadanik aginduta daude askotan. Zehazki, Udalak Pinuetako Plan Berezia gauzatu dadin behar diren 1.476.000 euro ipintzeko konpromisoa dauka. Egia da Urazkako hartzekodunen konkurtsoak arazoak eragin zituela, baina konpondu genituen, izan ere, egitekoak Vda. De Sainzi esleitu genizkion.

Lamiakoko PERRIrekin ia gauza bera gertatu da: Udalaren inbertitzeko ahalmena hitzartuta dago jadanik, betiere proiektu berririk ez badago; Hirigintza Batzordea proiektu berri horiek jasotzeko prest egongo da. Dena den, kontuan hartu behar da aurreikusitako obrak

hartzen dituzten proiektu anitz daudela, baina obra horietako eraikitzeke erritmoak eta auzoaren garapenak ahalbidetzen dutenean soilik gauzatu ahal izango direla.

Bestalde, Txorierriko hegoaldea osorik eraberritzeko lanak gauzatzeko daude oraindik, egun duela bi urte baino zailagoa den hirigintzako operazio baten zain. Zentzu horretan, 2009an bertan horiek gauzatu ahal izateko behar diren ahaleginak egiten ari garela uste dut; inbertsioen proiektuan egindako zortziehun mila euroko ekarpena da horren adierazgarri, hain zuzen, horrenganako dugun borondatearena eta uste osoarena.

Lehen kapital-transferentzien gainean mintzatu zarenean, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa aipatu duzu. Bada, arestian azaldu moduan, badakigu aurrekontuan islatu duguna baino handiagoa izango dela hori, baina ezin dugu bertan islatu. Aurrekontu teknikak hala galarazten du erakunde horiek behin betiko ebazpenik ematen ez duten bitartean; gauzak horrela, 2009an dekretu zein foru agindu ezberdinak onartzen diren heinean gauzatuko dira behin betiko ebazpen horiek.

Aurretik aipatu dudan moduan, Garapenerako Lankidetzan %0,7ri eustea da helburua, eta hori da, hain zuzen, aurrekontuak bermatu duena. Datozen urteetan egin daitezkeen hobekuntzei dagokienez, PPko Xabier Olabarrietak Batzordean egindako hausnarketarekin geldituko naiz: aurrekontu proiektuak *Pen Drive* batean banatu daitezela, paper gutxiago erabili eta inprimatzeko gastuak txikiagoak izango baitira horrela. Ondorioz, aurrekontu zorrotzak kontu sinpleenetatik abiatuz gauzatuko dira. Ildo horretatik, aipatu nahi dut urte askotan Udaltzaingoaren txostenak alde bakarretik inprimatu egin direla, baina aspaldi hasi ginen bi aldeetatik inprimatzen, eta datorren urtera begira hala izaten jarraitzea nahi dut. Halaber, papera behar ez den formatuak erabiltzen saiatuko gara.

Azkenik, erantzun gehiago emango ez ditudala jakinarazi nahi dizuet. Beraz, eskubide osoa duzue bigarren txanda bat eskatzeko, eta hala ez bada, hel diezaiogun gaur eztabaidatu beharrekoa bozkatzeari. Gainera, ez dago komunikabiderik; aurrez aurreko eztabaida bat da.

#### **PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:**

Gure aburuz, aurrekontu hauek udalerriarentzat oinarritzakoak diren proiektuak kanpoan utzi dituzte. Gainera, gaurko osoko bilkuran edo aurkeztu ditugun zuzenketen bidez ekarritako zenbait proposamen 2009an gauzatu daitezkeela esatearekin ez zaigu nahikoa iruditzen. Proposamen horiek onartzeko une egokiena orain dela deritzogu, hain zuzen, hausnartzeko aste honetan. Aurrekontu honetan gure alderdiaren iritzia kontuan hartzeko aukera galtzen utzi egin dela uste dugu.

Horrek guztiak penatu egiten gaitu eta, beraz, ezezko botoa emango diogu gobernu taldeak proposatutako aurrekontu proiektuari; izan ere, lehen adierazi dudan moduan, Leioak dituen beharretara ez egokitzeaz gain, batez ere zuzenketen bitartez ekarri ditugun proposamenak ez dira kontuan hartu. Hori gutxi balitz, finantzazioari buruzko zuzenketa behin eta berriz gaitzetsi egin dira. Mintzaldiaren hasieran esan dudan moduan, diru-sarreraren atal hori kritikatzeko errazagoa da; edonola ere, gure alderdiak proposatu dituen diru-sarrera handienak 2009rako baliozkoak direla eta arazorik gabe gauzatu daitezkeela uste dugu, dela superabitaren edo 2008ko kreditu-soberakinen edo orduan gastatu gabeko diruaren bidez, dela Eusko Jaurlaritzaren zein Foru Aldundiaren eskutik jasotako ezohiko diru-laguntzen bidez, dela Udalak kargarik ez duen une batean Udala bera zorpetzearen bidez, horrela inbertitzeko helburuetarako kredituak bere gain hartu ahal izango duelako.

Udalak diru-sarrera handiago horiek lortzeko ahalmen nahikoa dauka, baina hori gauzatzeko borondate politikoa behar da.

Azkenik, PSE-EEko bozeramaileraren mintzaldiaren bukaerako ildo beretik amaitu nahiko nuke nik: eskerrik asko Udaleko langile guztiei urte osoan egiten duzuen lanagatik, urte

berri on Udaltzari, baita udal langile denei ere; azkenik, Elsa eta Bea, onena opa dizuet zuen amatasunean.

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Gure alderdiak Udal honetako zenbait arlotan egindako kudeaketaren aurka entzundako irain anitzen ondorioz, ahaztu egin zait oso garrantzitsuak iruditzen zaizkidan bi gauza esatea.

Batetik, gizarte gaietarako arloan berdintasun gaiaren barruan Berdintasun Plana gauzatzeko eta finantzatzeko, baita beste hainbat politikatarako ere izango dugun diru-kopurua dezente handiagoa izango dela uste dut.

Bestetik, kontu bat deigarria izan zait, batez ere osagai animoso bat dagoela iruditu zaidalako: Hezkuntza arloan balioa galduko duen alderdien artean "Balore eta bizikidetzarako trebakuntza" dugu. Gogorarazi nahi dizuet alderdi sozialistak antzeko ildotik zihoan zuzenketa bat aurkeztu zuelako eratu zela hori. Aurten 74.400 eurotik 71.000 eurora igaro gara; %4,7 gutxiago, hots, 3.500 euro gutxiago. Horrekin batera, kontuan hartzen badugu gidaliburuak berrargitaratzeko partida handi bat erabili zela nahi genuen estaldura gauzatu zedin, eta ale kopuru handia soberan gelditu dela datorren urtean jarduera bera egin ez dezagun, aurtengo partidaren heren bat martxan egon diren hiru tailerrak aztertzeraz zuzenduta dago, datorren urtean hiru izan beharrean, behar diren guztiak izan daitezten. Izan ere, ez dugu gastatuko azterlana egiteko zuzendu diren hogeita lau mila euroko diru-kopurua.

Hau guztia nabarmendu nahi dut, beste gauzen artean, alderdi sozialistak egindako zuzenketa baten ondorioz sortutako ekimena delako, baina ez horregatik bakarrik; badakit bai Jon Lazkanok, bai nire aurrekaria izandako Daniel Herrerak, ahalegin eta ilusio handiak jarri zituztela horretan. Beraz, jendeak jakin dezan gogo eta ilusio horiek aurrera jarraitzen dutela.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Lehen esan dut ez dudala hitz egingo, baina mintzatuko naiz. Izan ere, hori egingo ez banu, eztabaida errealitatek urruntzen laguntzen egongo nintzatekeelako.

Aipatu duzuen partida hori, Iñaki Gomendiourrutia egindako balorazioa albo batera utzita, handiagoa da. Gainera, diru hori ez da aurreko urteetako gauzak errepikatzeke erabiliko. Kapitulu horrek ez du inolako gutxitzerik izan; izoztea jasan du, baina. Nolanahi ere, aurrekontuan minus bat agertzen da ondoko bi kontzeptuen arteko batura dela-eta: batetik, "Balioen hezkuntza" delakoak aurrera darrai ehuneko ehunean; bestetik, duela hogeitaz geroztik hezkuntzarekin lotuta zegoen hiru mila eta koskako partida baten erabilera aldatu egin da, inoiz gauzatu ez delako hori. Izan ere, urtetik urtera arrazoi ezberdinak direla-eta egiten diren aurrekontu-arazketen emaitza da. Ezin dugu ahaztu Hirigintza Saila aditua dela horretan, askotan zintzilik dauden eta pixkanaka metatuz joaten diren partidak baititu, 2000 edo 3000 eurokoak...Pleistozenoko garaikoak dira horiek. Hala ere, aurrekontuaren interpretazioan eragina dute, askotan teknikariek ondokoa esanez proposamenak gogorazten dizkigutelako: ba al du zentzurik beste hogeita hamabost urtez honekin jarraitzeak?

Bada, ziur naiz ezetz. Ondorioz, berriz egokitu eta beste partida batzuk handitu egiten dira. Batzuetan, gainera, maltzurtasunez jokatzeko benetako jaitziera izan dela baieztatuz. Kasu jakin honetan, baina, goian azaldutakoagatik gertatzen da hori.

Eztabaidaren ondoren gaia bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

**PPk AURKEZTUTAKO ZATIZKO ZUZENKETEN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **Aldeko hiru boto**, PPko hiru zinegotzianak; **kontrako hamabi boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak; era berean, **bost abstentzio** ere egon dira, batzarrera etorri diren PSE-EEko bost zinegotzianak. Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak, **ez du onartu** PPK 2008rako aurrekontu orokor bateratuari aurkeztu dizkion zatizko zuzenketak.

## **OGASUN ETA KONTUEN INFORMAZIO BATZORDE BEREZIAREN IRIZPENAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **Aldeko hamabi boto**, EAJ-PNVko hamar zinegotzianak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzianak; **kontrako hiru boto**, PPko hiru zinegotzianak; era berean, **bost abstentzio** ere egon dira, batzarrera etorri diren PSE-EEko bost zinegotzianak. Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak, **onetsi egin du** 2009rako aurrekontu orokor bateratua, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

## **II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA**

**9.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK, 2008-11-22tik 2008-12-24ra.** Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatuzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

### **10.- PRESAZKO MOZIOAK:**

#### **PPk AURKEZTUTAKO LEHEN MOZIOA**

Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, udal taldeko PPko bozeramaileak, Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 97/3. artikuluan ezarritakoaren arabera, Leioako Udalean, Osoko Bilkura honetan eztabaidatua izan dadin, ondokoa aurkeztu du:

#### **MOZIOA**

Udaletan demokrazia eta zinegotzien segurtasuna bermatzen duen 1/2003 Lege Organikoak, Toki Araubideari buruzko Oinarrien Legearen 61. artikulua aldatu egin zuen, udalak desgiteko arazoak eta jarraitu beharreko prozedurak ezartzeko, betiere gobernu taldeek interes orokorraren aurkako eraso larriak egiten badituzte. Era horretan, honakoa dio 61. artikuluko 1. kapituluak: "Ministro Batzordeak hala erabakita, eta dagokion autonomia-erkidegoko Gobernu Organoa jakinaren gainean egonik, zein batzorde horren eskariz, betiere Senatuaren aldeko erabakia jaso badu, tokiko korporazioetako organoak desgihin ahal izango ditu errege-

dekretuen bitartez, baldin eta interes orokorrenzako guztiz kaltegarri den kudeaketa bada, alegia, Konstituzioan ezarritzako betebeharrak betetzen ez badira.”.

Aldi berean, 61. artikuluko 2. kapituluak zera dio: “interes orokorretarako guztiz kaltegarritzat jotzen dira tokiko korporazioetako organoen erabakiak zein jarduerak, baldin eta terrorismoari zein hori gauzaten parte hartzen dutenei, dela zuzenean, dela isilbidez, behin eta berriz eta larri, estaldura nahi laguntza ematen badiete, hura goratu zein justifikatzen badute, eta biktimak zein beren familiakoak gutxietsi nahiz apaltzen badituzte”.

ETAren terrorismoak oraindik ere mina sortarazten du gure herrialdean, eta gizartearen hunkiturik dago talde hiltzaile horren azken atentatuak direla-eta. Gizarteak hilketa hauek gutxiesten dituen bitartean, ANV-EAE gobernuan dagoen Udaletan isiltasuna da nagusi, eta haien alkateek behin eta berriz uko egiten diote basakeria hori gaitzesteari. Ondorioz, hilketa horien gaizkide bilakatzen dira besteen aurrean.

Gainerako erakundearen aldean, horren ezberdina eta aurkakoa den jarrera horrek, hain zuzen, atentatu bat dagoen bakoitzean adostasunez eta sistematikoki agerian gelditzera bultzatzen duenak, ANV-EAEk gobernatzen dituen Udalak desegitea justifikatzen du. Kontuan hartu behar da, gainera, Auzitegi Gorenak alderdi hori ilegalizatu zuela 2008ko irailaren 22ko epaiaren bitartez.

Tokiko Araubideari buruzko Oinarrien Legearen 61. artikulua aldatzeari esker, Gobernuak Marbella bezalako Udala desegin du hango alkatearen eta zinegotzi guztien jarrerak, PPkoenak salbu, eragindako istiluak direla-eta. Bada, gizarteak ezin du ulertu zergatik hori egiteko gai izan den Gobernu berak, legezko estaldura falta argudiatuta, ezin dituen ANVk gobernatutako Udalak desegin.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, ALDERDI POPULARREKO UDAL TALDEAK ONDOKO HITZARMENAK EKARRI DITU, OSOKO BILKURA HONETAN EZTABAIDA ETA ONETS DAITEZEN

**LEHENEA:** Leioako Udalak ANV-EAEk gobernatutako Udalak desegiteko prozedurak lehenbailen ezartzeko agintzen dio Estatuko Gobernuari, legezko estaldura nahikoa baitago, aurrekariak baitaude, eta borondate politikoko erabakia besterik ez baita.

**BIGARRENA:** Estatuko Gobernuari premia eskatzen dio duela gutxi 9/2008 Errege Lege Dekretuaren bidez onartutako Toki Inbertsiorako Estatu Funtsearen dirua, zehazki, ANV-EAEk zuzendutako udaletara bideratutakoa, dagokien foru aldundietara transferitzeko, udalerriri horietako bizilagunek kalteak jasan ez ditzaten.

**HIRUGARRENA:** Gobernuko Presidentea den Rodriguez Zapatero jaunari hitzarmen akordio hauen berri ematea.

Mozioa aurkezteko garaian luzatu egin bagara ere, presazko mozioa dela deritzogu, desegiteko prozesua lehenbailean ezartzea behar-beharrezkoa delako, Euskadin izan ez dadin ETA erakunde terrorista babesteagatik, ANV-EAEkoak diren edo horiekin lotutako pertsonen osatutako gobernuaren duen Udalik.

### **PRESAZKO MOZIOAREN BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Lehenengo eta behin, azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da.

Honakoa izan da bozketaren emaitza: **aldeko zortzi boto**, batzarrera etorri diren PSE-EEko bost zinegotzienak eta PPko hiru zinegotzienak; **kontrako hamar boto**, EAJ-PNVko

hamar zinegotzienak; era berean, bi abstentzio ere egon dira, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak gehiengoz erabaki du mozioaren premia **baztertzea**, berau eztabaidatu eta bozkatu behar ez dela erabakiz.

**EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Gobernuko kideek ez bezala, premiazko mozioak onartu daitezzen baldintza gutxiago ezartzearen alde egin ohi dugu guk. Dena den, gaurkoa ez dugu uste horri buruzko premiazko iritzia emateko une egokia denik.

Gai honen inguruan eztabaidatzea benetan interesgarria iruditzen zait; berriro ere lasaitasunez irakurriko nuke eta ez, ordea, mozioa aurkeztu aurreko azken minutuan. Beharbada Barne Batzordean eztabaidatuko nuke hori, oso gai mamitsua baitzait.

**PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak** honakoa adierazi du:

EB-Berdeak adierazitakoarekin bat gatzela aipatu nahi dut soilik, alegia, Barne Batzorde batera eramatea egokiena iruditzen zaigu.

Duela gutxi batek esan bezala, ezin dugu ukatu premiazkoa denik; halere, ez dugu urte zaharreko eguna gai hori aurkezteko une aproposa denik. Berriro diot nahikoa larria den gai bat dela, Batzordean eztabaidatua izatea merezi duena. Halaber, aurkeztutako mozioak ez gaitu harritu, arraroa egiten zitzaidan osoko bilkura batean Xabier Olabarrietaren eskutik ezusterik ez edukitzea. Ez izan zalantzarik; lekukoa jasoko dugu, eta esan beharrekoak Barne Batzordean esango ditugu.

**EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak** euskaraz esandakoaren laburpena:

Gai hauei buruz mintzatzen garenean esaten ohi dugun bezala, ez dugu uste presazko mozioa denik; beraz, beste bide baten bitartez izapidetu beharra dagoela deritzogu. Hori dela eta, ados gaude Iñaki Gomendiourrutiak egindako proposamenarekin: Barne Erregimeneko Batzordetik pasa behar da hori.

Edonola ere, aipatu nahi dut mozioa ez dela presazkoa izan, korrika eta presakakoa baizik. Batzuek, gainera, ez dute irakurtzeko astirik izan. Nire ustez, aurretik egitea posible zen; areago, proposamen hau Uria jaunaren aurkako atentatuaz gain, Isaias Carrascoren hilketaren ondorioz ere aurkeztu ahal zen eta, Barne Erregimeneko Batzordean gai honi buruz aritzeko nahikoa denbora izan dugu.

Bide batez, bi hilketa hauek ez ezik, gainerako guztiak kondenatu nahi ditut. Nolanahi ere, Batzordean argituko dugu mozioaren edukiaren inguruan dugun iritzia.

## **11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Lehenengo eskaera:

**PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak** esandakoaren laburpena:

Udalbatzako kideek dakizuen bezala, gorabehera ugarien ostean, Arrain Hiruarantza Kudeatzeko Plana onartu berri da, eta berri pozgarria da denontzat. Gai honi buruz eztabaidatu genuenean, aipatutako arraina desagertzeko arrisku handian zegoen, baina egun, egoera larriagoan aurkitzen da. Izan ere, Bizkaian haien bizitokia zena, hots, Castaños ibaia, arrazoi ezberdinak direla medio erabat suntsituta dago: uholdeak, obrak edo dena delakoa. Populazioa izugarri jaitsi egin da. Horrela, ondorio handienak jasan dituzten eremuetan, ibaiko ehun metro bakoitzeko sei ehun edo zazpiehun arrain izatetik sei edo zazpi izatera pasa da. Beraz, arrain mota hau benetan desagertzeko zorian dago.

Hobe dugu arrain hiruarantza aurki daitekeen beste toki batzuei buruz, Gobela ibaia, esaterako, ez mintzatzea, izandako uholde ezberdinak eta kalteak errepika ez daitezten egin

behar diren obrak kontuan hartuz, egoera benetan zaila izango baita. Asua, Udondo eta Lertutxeko urtegia geratzen dira soilik; azken horretan, arrain hiruarantza bizi izan zen. Bestalde, Asuako eta Udondoko egoera ere txarra da.

Zera eskatu nahi diogu Alkate jaunari: Udalak berak dagokion Batzordeari legearen aurrean urtegi horren gaur egungo egoera azaltzen duen informazioa ematea, zehazki arrantzarako esparruaren, bertan gauzatu daitezkeen edo ezin daitezkeen arrantzako jardueren inguruan. Izan ere, nire alderdiarentzat ez ezik, gainerakoentzat ere oso garrantzitsua da etorkizunean urtegi horretan arrain mota hau behin betiko desagertu aurretik berriz sartu daitekeen aztertzea. Nolanahi ere, hori gertatzen den edo ez den arren, informazioa interesgarria litzateke.

Zorionak eta urte berri on.

**EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak esandakoaren laburpena:

Gobela ibaian izandako hondamendiak kontuan hartuz, arrainarentzako biziraupeneko igeriketa ikastaro bat eskatu behar zenidala uste nuen, baina zure eskakizunari heltzea errazagoa izango da.

Bukatzeke, hiru ohar eman nahi ditu: batzuetan ez dut lortzen, baina ez dut atsegin Udalbatzako kideek komunikabideen bidez gauzen berri izatea, normalean ez baitatoz bat errealitatearekin ehuneko ehunean. Ez dakit Ekonomia Sustatzeko Batzordeko Presidentea noizbait mintzatu den zuekin Aranzadi Zientzia Elkartearekin lotuta, Kortesenabarri baserriak izango duen helburuaren inguruan: El Correok Elkartearen egoitza izango dela argitaratu duenez, zein helburutarako erabiliko den galdetu zidaten prentsaurrekoan, eta lehenbiziko aldiari ez nuen ezer esan, ezta bigarrenean ere; hirugarrenean, ordea, zera esan nuen: ezin dizut helburua zein den esan; Aranzadi Zientzia Elkartearekin mintzatzen eta hitzarmen bat amaitzen ari gara, baina, mesedez, ez argitaratu egunkarian egoitza izango denik, egun ezin baitaiteke horrelakorik esan. Gaur egun, oraindik ez dakigu aipatutako Elkartearen egoitza izango den, hitzarmen-zirriborroekin ari garela. Dena dela, Elkarte fidagarria dela deritzot, eta kontuan hartuta azken urtean haiekin batera lanean aritu garela, –baita baserriko entxufeen kokapena erabakitzeko unean ere, aintzat hartuz administrari, ikerlari edo dena delakoaren lanpostuen kokapen fisikoa–, ez dut uste inolako ezustekorik izango dugunik, baina berriro diot egun ezin dugula egoitza izango denik ziurtatu.

Bukatzeke, zorionak dagoeneko zoriondu dituzten Errenta, Ogasun eta Ondare eta bestelako diru-sarreraren Saileko teknikariei. Bestetik, Ogasun arloko zinegotzia den Iñaki Goikoetxea zoriondu nahi dut ere bai, zenbait egunetan ez baitugu gurekin izan, eta hura itzuli arte itxaron dugu jendaurrean zoriontzeko egokitzeko zaila den urte bateko aurrekontua horren ongi egokitzeagatik.

Azkenik, urtea ongi bukatzea eta denon artean korapilotsu samarra datorren 2009. urteari aurre egin ahal izatea espero dut; bestalde, haurdun zaudetenei dena behar bezala joatea opa dizuet.

Eta gaueko zortziak eta berrogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.  
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,